

**EUSKARA**

*Oihana MITXELENA LEGAZKUE*

**HAUR HIZKERAREN  
TRANSMISIOA  
ETXE GIROTIK  
HEZKUNTZARA:  
DONEZTEBEKO KASUA**

***GBL 2014***

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

***Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua***



**Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua**  
**Grado en Maestro en Educación Infantil**

Gradu Bukaerako Lana

Trabajo Fin de Grado

**HAUR HIZKERAREN**  
**TRANSMISIOA**  
**ETXE GIROTIK**  
**HEZKUNTZARA:**  
**DONEZTEBEKO KASUA**

Oihana MITXELENA LEGAZKUE

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES  
**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**

Oihana MITXELENA LEGAZKUE

**Izenburua / Título**

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

**Gradu / Grado**

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

**Ikastegia / Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales

Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria/ Director-a**

Ekaitz SANTAZILIA SALVADOR

**Saila / Departamento**

Filología y Didáctica de la Lengua

Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2013/2014

**Seihilekoa / Semestre**

Udaberrikoa / Primavera

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakutsi dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak bidea eman digu, 0-6 urte bitarteko haurren heziketa prozesuak, irakaskuntzak eta garapen kognitiboak,

---

komunikatiboak, sozialak eta afektiboak ezagutzeko, haur hizkeraren erabilera (§1.3.) eta ezaugarriak (§1.4.1.) aztertu baititugu. Gainera, berdinekiko eta helduekiko dituzten interakzioak ezagutzeko aukera izan dugu. Horretaz gain, gizartea, familia eta eskolak duen eragina ikusi ahal izan dugu, izan ere, familiekin eta irakasleekin komunikazioan egon baikara (§E1 eta §E2) eta horrek umeen hizkuntza zein punturaino baldintzatzen duten ikusteko aukera eman digu. Honekin batera, haurrak gero eta lehenago eskolatzeko joera dagonez, horrek haurraren hizkuntzaren jabekuntzan zer nolako eragina izan dezakeen hausnartzera eramán gaitu (§1.6.). Modu honetan, gure lanean hezkuntzari lekua egin diogu, Haur Hezkuntzako curriculumak aztergai dugun gaiari buruz egiten dituen ekarpenak, hausnarketarako bidea eman digutenak, aztertu ditugu eta eskolaren esku-hartzez hitz egin dugu (§1.6.2.). Behaketa sistematikoa eta testuinguruaren analisiaren bidez, behaketa teknikak praktikan jarri ditugu baita erregistroa ere, hain zuzen ere, lanaren atal praktikoa egiteko elkarriketak, behaketak eta grabazioak erabili baititugu (§E1 eta §E2).

Didaktika eta diziplinako moduluak bidea eman digu, ahozkoatasunari dagokion arloa aztertzeko, horretarako, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko curriculumak erabili dugu. Horretaz gain, hizkuntzaren jabekuntza prozesua aztertu dugu eta prozesu edo garapen horretan gertatzen diren faseak eta zenbait teoriak esaten dutena bildu dugu (§1.1.). Helduek haurrei zuzentzean moldatzen duten hizkera horren erabilera aztertu dugu (§1.3.) lehenik mundu mailan (§1.4.) ondoren, euskal haur hizkeran (§1.5.) eta azkenik, Donezteben (§2). Doneztebe izan baita gure ikerketa gune nagusia.

Halaber, Practicum moduluak aukera eman digu haurrekin zein irakasleekin interakzioa eta komunikazioa izateko, izan ere, lan honen atal praktikoa burutzeko Doneztebeko guraso, aitatxi-amatxi eta irakasleekin harremanetan egon gara, eta hauengandik jasotako iritzi, ideia eta ekarpenei esker atal hau aurrera eramán ahal izan dugu (§2). Lanaren lehen atalean, marko teorikoa deitu diogun horretan, lekua egin diogu gai honi buruz iturri ezberdinetatik jasotako informazioari eta autore ezberdinek egindako ekarpenei. Hori kontuan izanik, eta aipatutako guztia teoria hutsean geratu ez zedin, praktikan jarri dugu eta horretarako bertatik ateratako zenbait datu eta informazio erreallitateara, hain zuzen ere, Doneztebeko herrira, eramán ditugu. Bertan aurretik aipatutako Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

guztia aztertu dugu eta lan honetarako erabilgarriak suertatu zaizkigun datuak bildu ditugu, erran bezala lanaren bigarren atala praktikan oinarritzen baita. Honekin batera, gure gaitasun sozialak eta linguistikoak garatu ahal izan ditugu Doneztebeko zenbait guraso eta irakaslerekin elkarrekintzan aritu baikara (§E1 eta §E2) bertako haur hizkeraren egoera gehiago ezagutuz eta hauek dituzten iritzi eta jarrera ezberdinen berri izanez. Modu honetan, gai honekiko genituen ezagutzak zabaldu ditugu eta hausnartzera eraman gaitu, horretarako bidea zabalik utziz.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira INTRODUCCIÓN eta CONCLUSIONES atalak baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

## Laburpena

Lan honetan haur hizkerari buruz hitz egin dugu, haur hizkeraren definiziotik hasi, munduan barrena haurrekin zer nolako hizkera erabiltzen den ikusi (hizkera berbala eta ez berbala) eta gure haur hizkera, euskal haur hizkera, aztertu dugu. Hizkera honen inguruan aditu desberdinek egindako ekarpenak bildu ditugu eta haur hizkeraren definizioa, erabilera eta ezaugarriak (orokorrak eta euskal haur hizkerak dituen ezaugarri bereziak) ikusi ondoren, hezkuntzan murgildu gara. Haur hizkerak hezkuntzan zer leku duen eta zer leku izan beharko lukeen aztertu eta hausnartu dugu, hori izan baita lan honen helburu nagusienetarikoa. Malerreka eskualdean, eremu euskaldunean, kokatuta dagoen Doneztebe herria gure ikerketaren erdigunea izan da. Bertako zenbait guraso, aitatxi-amatxi eta irakasleei egindako elkarrizketa eta haur eskolan burututako zenbait behaketa eta grabazio bildu ditugu, horietan oinarrituz, zenbait emaitza aztertu ditugularik. Atal teorikoan ikusitako guztiarekin eta emaitza hauetan lortu ditugun datuekin gure lanaren ondorioak atera ditugu, hausnarketarako balio izan digutenak eta gai honen inguruan ikertzen jarraitu nahi duenarentzat hausnarketarako bidea irekia utzi dugu.

*Hitz gakoak:* Haur hizkera; erabilera; Doneztebe; transmisioa; hezkuntza.

## Resumen

En este trabajo hemos hablado del lenguaje maternal. Para empezar, hemos analizado la definición del lenguaje maternal. A continuación, hemos investigado cómo es el lenguaje maternal en diferentes países del mundo y hemos querido ver las características que tiene nuestro lenguaje maternal, el lenguaje maternal vasco. Después de recopilar estas características especiales nos hemos centrado en la Educación. Hemos investigado y reflexionado sobre el papel que tiene el lenguaje maternal o el papel que debe de tener en la Educación, ya que este es uno de los mayores objetivos de nuestra investigación. Santesteban, un pueblo euskaldun, situado en el valle de Malerreka, será el centro de nuestra investigación. Hemos analizado los resultados de algunas conversaciones y grabaciones de padres, abuelos y profesores de Santesteban. Con todo lo recopilado en la parte teórica y con Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua



estos últimos datos hemos extraído unas conclusiones que nos han llevado a reflexionar y que dejan el camino abierto para ello a aquellas personas que estén interesados en este tema.

*Palabras clave:* Lenguaje maternal; el uso; Santesteban; transmisión, Educación.

### **Abstract**

In this work we have spoken about the maternal language, which we can also call, child-directed Speech. With child-directed Speech, we have talked about language that adults use at the moment of communicating to the children. Beginning with the definition of child-directed Speech, we have continued investigating the way in which adults interact with the children in different cultures and countries (verbal language and not verbal language) and we have ended up by analyzing our child-directed Speech, which we have called, Basque child-directed Speech. We have seen the definition, the use and the characteristics of this language and what role it has or it must have in Education. It is the principal aim of our research. Our research has been carried out in Doneztebe and we have analyzed the results of certain conversations and recordings of the Doneztebe parents, grandparents and teachers. Finally we have carried out some critical thought about child-directed Speech.

*Keywords:* Child– directed Speech; the use; Doneztebe; language transmission; education.

## Aurkibidea

### Introducción

<b>1. Marko teorikoa</b>	<b>1</b>
1.1. Haur hizkera hizkuntzaren jabekuntzaren barnean	1
1.2. Haur hizkeraren definizioa	3
1.3. Haur hizkeraren erabilera	4
1.4. Haur Hizkera munduan	6
1.4.1. Nolakoa da Haur Hizkera munduko lurralde desberdinetan	6
1.4.2. Ezaugarri orokorrak	7
1.4.2.1. Hizkuntza berbala	7
1.4.2.2. Hizkuntza ez-berbala	8
1.5. Euskal haur hizkeraren ezaugarriak	10
1.6. Hizkuntzaren jabekuntza 0-3 etapan	14
1.6.1. Curriculumarekin duen lotura	14
1.6.2. Eskolaren esku-hartzea	15
1.7. Haur Hizkera eskolan	16
<b>2. Atal praktikoa. Donezteben haur hizkerak duen lekua</b>	<b>17</b>
2.1. Donezteben euskarak dituen datu orokorrak	18
2.2. Haur hizkerarekin lotutako lanak	22
2.3. Gure ikerketa	23
2.4. Metodologia eta materialak	26
2.5. Emaitzak eta horien analisisa	28
2.5.1. Etxe giroa.	28
2.5.2. Hezkuntza mundua	32

### Conclusiones y cuestiones abiertas

### Erreferentziak

### Eranskinak

- E1. Gurasoei egindako elkarrizketak
- E2. Irakasleei egindako elkarrizketak
- E3. Haur eskolan egindako behaketa eta grabazioak



---

## INTRODUCCIÓN

La comunicación es un recurso que tiene el ser humano para interactuar con las personas que le rodean, ya sea mediante el lenguaje verbal o mediante el lenguaje no verbal. Todos los gestos, las posturas, la mirada, la sonrisa, etc. todo es comunicativo. En la infancia la comunicación está muy presente, el niño desde que está en la barriga de su madre y después de nacer, está rodeado de estímulos y está expuesto al lenguaje que utilizan las personas que le rodean. Poco a poco en su desarrollo, el niño va adquiriendo otras habilidades, entre ellos el lenguaje.

Según Pérez (s.d.), para algunos autores la adquisición del lenguaje está relacionada con los mecanismos innatos que tiene el niño y no con la influencia que recibe del ambiente. De esta forma, el niño va hablando cada vez mejor porque hay un calendario madurativo que indica en cada momento el nivel de lenguaje que debe alcanzar.

Para otros autores, la adquisición del lenguaje se da a través del aprendizaje. En este proceso no hay nada innato. El niño aprende a hablar gracias a las asociaciones que tiene con los que le rodean.

Hoy en día la postura que defienden la mayoría de los investigadores es la de que la adquisición del lenguaje es en parte innata y en parte adquirida. Es decir, existen unos mecanismos biológicos que compartimos los seres humanos pero, para que estos mecanismos funcionen es necesario el contacto con el ambiente.

Teniendo en cuenta la postura que defienden la mayoría de los investigadores, para que el niño adquiera el lenguaje verbal es necesario que el niño sea capaz de tener contacto con las personas que le rodean.

Schaefer (*apud* Pérez, s.d.: 4-9), según la edad del niño, divide en una serie de fases la aparición del lenguaje prelingüístico:

A través de los contactos que experimenta el niño va aprendiendo lo que se llaman prerrequisitos del lenguaje, empiezan a darse las primeras etapas de la socialización.

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

Hacia los dos meses y los meses siguientes manifiestan un interés especial por interactuar con otras personas, especialmente con las personas más cercanas que serán los padres y hermanos u otros familiares.

Teniendo en cuenta que en los primeros años de vida, el niño no tiene las habilidades lingüísticas suficientes para utilizar el lenguaje verbal, en estos contactos a pesar de la presencia del lenguaje verbal el lenguaje no verbal también estará muy presente.

Poco a poco el niño irá adquiriendo el lenguaje. Como proponen Stassen Berger y Thompson, durante los primeros meses los niños se comunican con diferentes sonidos pero mayormente se limitan a llorar, a gritar, etc.

Del tercero a los seis meses aparece el balbuceo. A partir de los seis meses y hasta el décimo mes, aparecen los balbuceos con sonidos vocálicos y consonánticos repetidos en sílabas (*ma-ma-ma*). El niño se limita a repetir la misma sílaba. En este momento también empiezan a aparecer los primeros gestos.

A partir de los diez meses y hasta los doce-trece el niño empieza a realizar sonidos con entonaciones y gestos muy simples con algún significado.

En los siguientes meses el niño ya sabe decir algunas palabras y el vocabulario va aumentando progresivamente.

Hacia los dieciocho meses, el niño tiene gran capacidad para aprender nuevo vocabulario. Los niños aprenden con más facilidad los sustantivos que los verbos, y éstos más rápido que los adjetivos, conjunciones o adverbios. Nos encontramos con algunas de las características que tiene el lenguaje maternal y por lo tanto es importante tener en cuentas estas características.

Hacia los veintiún meses los niños empiezan a utilizar frases más complejas, compuestas de más de una palabra.

A pesar de haber una serie de etapas, tenemos que tener en cuenta el desarrollo del lenguaje que tiene cada niño, su capacidad cognitiva o el ritmo de maduración, ya que cada niño es único.

---

Las características que tiene un niño en la adquisición del lenguaje, en los primeros años de su vida, nos lleva a preguntarnos, ¿Cómo es el lenguaje que utiliza el adulto a la hora de dirigirse a un niño? ¿Utilizamos el mismo lenguaje con un niño de 2 años o con uno de 8 años?

“Son pocas las personas que no modifican su lenguaje cuando hablan con los niños o son pocos los padres que cuando se comunican con los niños no hacen modificaciones lingüísticas” (Zubiri, 1995: 175).

Por eso tenemos que hablar del “lenguaje maternal” o del “habla dirigido al niño”. Cuando hablamos del lenguaje maternal haremos referencia al lenguaje especial que utilizan los adultos cuando hablan con los niños (Zubiri, 1995).

El adulto utiliza el lenguaje maternal debido a diferentes razones, ya sea para mostrar afecto o para facilitar el lenguaje. Para ello utiliza diversos medios: el lenguaje verbal (las repeticiones, la entonación, el ritmo, etc.) y el lenguaje no verbal (gesticulaciones, miradas, etc.).

Cuando hablamos de lenguaje maternal, podemos decir que no son muchos los trabajos que se han hecho sobre este lenguaje. Algunos trabajos, el de Lizarraga (2010) o Aranguren *et al.* (2014) entre otros, se han limitado a ofrecernos el vocabulario especial que está presente en la infancia. Juan José Zubiri (2002) va más allá del diccionario que usan los niños, centrándose en otros aspectos. Nosotros con este trabajo también hemos querido analizar otros aspectos relacionados con el lenguaje maternal: quién lo utiliza, hasta qué edad se utiliza, dónde se utiliza, la razón por la que se utiliza, si tiene consecuencias a la hora de adquirir un lenguaje y si debemos de utilizar en el ámbito de la educación. Todas estas preguntas estarán presentes en nuestra investigación, que llevaremos a cabo en Santesteban, en un pueblo situado en el norte de Navarra.

Este trabajo consta de dos partes, la primera parte está basada en la información que hemos recopilado acerca del lenguaje maternal (§1) y la segunda parte será más práctica (§2).

En la primera parte, en el marco teórico, hablaremos de la importancia que tiene la utilización del lenguaje maternal en la adquisición del lenguaje (§1.1.). A continuación, daremos una definición del lenguaje maternal ya que hay Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

diferentes opiniones sobre este tema (§1.2.). Pero, ¿Cuál es el objetivo de su uso?; ¿Quién lo utiliza y cómo?; ¿Cuándo se utiliza? En este trabajo responderemos a estas preguntas (§1.3.). Ya que en todos los lugares del mundo no nos comunicamos de la misma manera, el lenguaje maternal también tiene sus diferencias según el contexto y el lugar en el que se utiliza, por eso, analizaremos cómo es el lenguaje maternal en diferentes países (§1.4.1.). A pesar de estas diferencias, algunos autores se han puesto de acuerdo a la hora de mencionar las características comunes que tiene el lenguaje maternal en todos los lugares del mundo (§1.4.2.). Una vez investigado eso nos centraremos en nuestro lenguaje maternal, en el lenguaje maternal vasco (§1.5.).

Como futuros docentes que seremos nos interesa llevar el lenguaje maternal a la educación e investigar qué presencia tiene allí. Por eso, analizaremos la importancia que tiene la adquisición del lenguaje en la etapa de 0-3 años (§1.6.1.), el lugar que ocupa el lenguaje en el currículum de Educación Infantil (§1.6.2.) y cómo debe responder la escuela en esta etapa (§1.5.3.).

Para terminar la parte teórica, hablaremos del lugar que tiene o del lugar que debe de tener el lenguaje maternal en Educación infantil (§1.7.). Este es uno de nuestros mayores objetivos de este trabajo.

En la segunda parte, en la parte practica, hemos querido llevar la teoría, que hemos mencionado en el marco teórico, a la realidad y a un entorno, concretamente al pueblo de Santesteban, a un pueblo que está situado en el norte de Navarra, en la comarca de Malerreka. Para llevar a cabo nuestra investigación, analizaremos la situación que tiene el euskera en Malerreka (§2.1.), los trabajos que se han hecho en la zona relacionados con el lenguaje maternal (§2.3.) y verificaremos o anularemos ciertas hipótesis que teníamos antes de comenzar hacer nuestra investigación. Para ello, observaremos las opiniones de los habitantes de Santesteban y de los profesionales que trabajan en la educación mediante entrevistas, observaciones y grabaciones que hemos hecho (§2.4.).

---

Para terminar la parte practica, hemos sacado unas conclusiones y hemos reflexionado sobre el papel que debe ocupar el lenguaje infantil en la Educación.



# 1. MARKO TEORIKOA

## 1.1. Haur Hizkera hizkuntzaren jabekuntzaren barnean

Haur hizkera aztergai izango dugun honetan, lehenik eta behin haur hizkerak haur baten hizkuntzaren jabekuntzan zer paper betetzen duen aztertuko dugu, honen erabilerak hizkuntzaren jabekuntzan eraginik duen edo ez ikusteko.

Jaiotzen garen momentutik ingurunearekin harremanetan gaude, eta gainontzeko pertsonekin komunikatzeko erabiltzen dugun tresna hizkuntza da. Hizkuntza, gure beharrak eta nahiak adierazteko, jolasteko, hezteko, etab. erabiltzen dugu (Baraibar eta Boan, 2006). Hala ere, hizkuntzaren jabekuntza poliki-poliki ematen da, haurra fase batzuetatik pasatzen baita benetan hizkuntzaz ongi jabetzen den arte.

Prozesu horretan haurrei zuzentzerakoan erabiltzen dugun hitz egiteko era ez da 40 urteko pertsona batekin hitz egiten dugunean erabiltzen dugunaren berdina. Izan ere, ez diogu berdin hitz egiten 2 urteko ume bati edo 40 urteko pertsona bati. Haur txikiari zuzentzeko erabiltzen dugun hizkera hori hartzen badugu, haur hizkeraz hitz egiten ari gara. "Haurrei zuzentzen zaien barietate bereziaz hain zuzen ere" (Zubiri, 2002: 17).

Zenbait adituk hizkuntzaren jabekuntzaren inguruko ideiak plazaratu dituzte eta guk horietatik bildu ditugu datozen lerroetan. Hain zuzen ere, Vygotskyren ekarpenak garrantzitsuak izan ziren baita XX. Mendearen bigarren erdian, Skinner eta Chomskyren ekarpenak ere. Aditu hauek haur hizkeraren jabekuntza ez zuten zuzenean ikertu, hala ere, hizkuntza-jabekuntzaren garapenari buruz sortu zituzten teoriak eta bultzatu zituzten eskolak, oraindik oinarritzakoak dira gaur egun ere (Barreña, 1993).

Hala ere, bien arteko jarrera kontrajarriak daude, batek konduktismoa defendatzen baitu (garapenerako garrantzitsuena ez da organismoaren barruan dagoena, baizik eta organismo horri kanpotik iristen zaiona) eta besteak generatibismoa (ezagutzak innatoak dira, ez dira esperientziaren bitartez eskuratuak, ezagutza horiek jakinda jaiotzen da haurra) (Barreña, 1993).

---

Bruner Halliday hizkuntzaren alderdi komunikagarri eta funtzionala azaltzen saiatu zen. Bruneren arabera, hizkuntza bat erabiltzen ikasten da eta erabilpen horren oinarrian haurrak beste pertsonekin izaten dituen hartu emanak daude. Modu honetan hizkuntzarekin batera gure kulturaren transmisioa ere ematen da (Barreña, 1993).

Hizkuntzaren jabekuntzaz ari garelarik, hiru ikuskera bereiz ditzakegu. Alde batetik, Skinnerrena, bestetik, Chomskyrena eta azkena, Lev Vygotskyrena (*apud* San Vicente, 2014: 13).

Skinneren erranetan, hizkuntza bat esperientziaren bidez ikasten da soilik eta ez da gizakiak berezkoa duen zerbait. Hau da baldintzapen operantearen bidez eta imitazioaren bidez jabetzen dira haurrak hizkuntzaz.

Chomskyren ustez, hizkuntzaren jabekuntza, zati handi batean behintzat, biologikoki zehaztua dago. Ez du ukatzen esperientzia beharrezkoa dela, hizkuntza ikasteko haurrak hizkuntza entzun behar baitu, baina gizakiok hizkuntza ikasteko gaitasun berezi bat dugula pentsatzen du. Horretaz gain, Chomskyk hizkuntzaren autonomia defendatzen du, haurren lorpen linguistikoak bere garapen intelektualarekin independenteak direla esanez, alegia.

Bukatzeko, Vygotskyk, gaitasun kognitiboak ez daudela jaiotzetik zehaztuak defendatzen du, beraz, bere ustez, sozializazioaren bidez eskuratzen ditugu.

Hizkuntzaren jabekuntzaren teoria desberdinak daudela ikusirik, haur hizkera hiru teoria hauek baldintzatzen dute.

Normalean jaiotzen garen unetik momentu oro hizkuntza bat entzuten ari gara eta lehenengo hitzak ezer irakurri baino lehen erraten ditugu. Hortik abiatuz, hizkuntzaren jabekuntzarako haur hizkera erabiltzea zein garrantzitsua izan daitekeen ikus dezakegu. Carnegie Mellon University eta the University of Wisconsin-ek egindako ikerketaren arabera (Ochs eta Schieffelin, 1984) Baby talk edo haur hizkerak haurrari hitz berriak azkarrago ikasten laguntzen dio, izan ere, haurrek atentzio gehiago jartzen dute gurasoek haur hizkeraz hitz egiten badiete, beste ezaugarri batzuen artean, mantsoagoa eta errepikapen gehiagoko hizkuntza delako nahiz eta kultura guztietan horrela ez den, aurrerago ikusiko dugun bezala. Hizkuntza berbalaz gain, ez ditugu ahaztu Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

behar hizkuntza ez berbalaren bidez egiten ditugun mugimendu edo keinuak, horiek ere lagungarriak baitira hizkuntzaren oinarrikoa funtzioak eta estrukturak ikasteko (Boyles, 2005).

Juan Carlos Etxegoienen *Herri eta hizkuntzen ekologiak* (2001) liburuan, Larrekok aipatzen dituen hitzak dakarkizuegu: “ Gehienek belarrietatik bakarrik ikasia dugu euskara eta ez irakurtuz” (Etxegoien, 2001: 71). Haurrak aditzen duena barneratzen du.

Hasiera batean gurasoen solasak betetzen du haurraren adimena, batez ere, familiaren alorrean murgilduta dagoelako. Poliki-poliki hizkuntza erabiltzeko espazio berriak zabalduko zaizkio: bertze pertsona helduak, gainerako haurrak, kalea, eskola, telebista, irratia... (Etxegoien, 2001: 71).

Haur hizkera lehenengo urte horietan, haurra hizkuntzaz jabetzen ari den prozesu horretan erabiltzea, Brow-en arabera, hizkuntzaren jabekuntza errazteko bidea izan daiteke, hizkera sinpleagoa izanik (*apud* San Vicente, 2014:15). Zubirik ere honen inguruko iritzia ematen duenean honela dio: “Haur hizkerak hizkuntzaz jabetzeko eskaileraren lana egin dezake” (1995: 201). Schieffelin eta Ochs-en (1986: 175) arabera ere horrelaxe da: “Historian zehar, haur hizkera hizkuntzaren jabekuntza errazteko bide bat bezala har daiteke”.

Hori dena ikusirik, haur hizkerak hizkuntzaren jabekuntzan, zenbait kasuetan, bere tokia izanen du.

Beraz gure proposamenari helduz, merezi al du haur hizkera etxean ez ezik eskolan lantzea? Haurraren hizkuntzaren jabekuntzan eraginik izan dezake? Gure lana aurrera doan heinean galdera honi erantzun bat emango diogu.

## **1.2. Haur Hizkeraren definizioa**

Haur Hizkeraren inguruan gehiago sakontzen hasi aurretik, lehenik eta behin haur hizkeraren definizioa zein den aztertuko dugu.

Haur hizkeraz hitz egiten dugunean, “haur txikiei zuzentzean helduek erabiltzen duten hizkuntzaren barietate bereziaz ari gara” (Zubiri, 2002: 17).

Barietate hau ez dago hiztegi bereziaz bakarrik osaturik; beste hainbat osagai ere baditu, hala nola, doinu aldaketak, hizkera normaleko zenbait hots edo fonema aldaketak, partikula batzuen erabilera morfosintaktiko bereziak eta hiztegi berezia, haur txikiek bakarrik erabiltzen den hiztegia (Zubiri, 2002: 17).

---

Gure inguruko zenbait autorek hizkera honi buruz egin dituzten lanak erreparatzen baditugu, ikus dezakegu gehienak hitz bildumak ematera mugatu direla, hala nola, Aurkerena *et al.*-ek (1999) haur hizkeran helduek erabiltzen dituzten hitzak bildu zituen eta Lizarragak (2010) ere antzekoa egin zuen. Hori dela eta, haur hizkerari buruz harrapatu dezakegun informazio gutxi hori, gehienbat, hitz bildumei lotutakoa da.

Beraz, erran dezakegu, “hemengo ikertzaile gehienentzat, haur hizkera, gutxi gehiago, haur txikiekin erabiltzen den hiztegia litzatekeela” (Zubiri, 2002: 17).

Lan honetan, helduek haurrei hitz egiterakoan erabiltzen duten hizkera mota horretaz arituko gara. Snowren arabera, zenbait adituk, termino desberdinak erabiltzen dituzte kontzeptu bera adierazteko: ume hizkera (baby talk), ama hizkera (motherese) edo haurrei zuzenduriko hizkera (*apud* Zubiri, 2002: 17).

Nahiz eta haur hizkeraren inguruan egindako lan gehienak haur txikiekin erabiltzeko hiztegi bildumak izan diren, Zubiri bere lanetan (1995, 2002) hortik haratago joan da eta haur hizkeraren inguruko ideia berri gehiago ekarri dizkigu. Hala nola, nork erabiltzen duen, non erabiltzen den edo erabiltzearen arrazoiak zeintzuk diren. Gu ere hiztegi bilduma horretatik haratago joango gara eta galdera horiek teoria hutsean gelditu ez daitezzen, errealitatera eramango ditugu, hain zuzen ere, Nafarroan, Malerreka bailaran kokatuta dagoen Doneztebe herrira (§2).

Hala ere, hori aztertzen hasi baino lehen, ikus dezagun haur hizkera noiz ematen den, nork erabiltzen duen eta nola erabiltzen den. Gero, gure ikerketara eramango dugu hemen ikusitakoa eta hala gertatzen den edo ez ikusiko dugu.

### **1.3. Haur hizkeraren erabilera: Noiz, nork eta nola**

Haur hizkeraren erabilerari erreparatzen badiogu,

Hizkuntza guztietako hiztunek, menderik mende, haurrekin hitz egiteko modu berezia garatu dute. Euskaldunok ere belaunaldiz belaunaldi haur txikiekin komunikatzeko erregistro bat garatu dugu, haiek erraz ahoskatzeko eta ulertzeko moduko hitzak erabiliz, hizkuntza pixkanaka eta modu egokian ikas dezaten. Horregatik, haur hizkeran errepikatzen diren soinuak eta silabak topatuko ditugu, animalien eta bestelakoen hotsak, edo tt, ll, ñ, x bezalako ahoskera xamurra duten hitzak (Aranguren, Arburua *et al.*, 2014: 75).

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

Gaur egun, haur hizkera ez erabiltzearen aldeko eta kontrako jarrerak agertu dira gure gizartean:

Aldeko jarrerak badaudela ikusi ditugu, hala nola, Ansorenak (2002) mendeetan zehar probatu, saiatu eta emaitza onak lortu dituen bidea dela dio, hizkuntza bat bere osotasunean ikas dezagun.

Hala ere, kontrako jarrerekin ere topo egin dugu:

Egia da azken urteotan haur hizkera gutxiago erabiltzen dela. Alde batetik, gaur egungo guraso asko eskola bidez euskaldundu dira, eta txikitan ez dute aukerarik izan hizkera hori ikasteko. Bertze alde batetik, hizkera horren kontrako jarrera ere zabaldu da, haurren hizkuntz garapenerako kaltegarria delakoan (Aranguren, Arburua *et al.*, 2014: 75).

Jarrera negatibo horiek gure ikerketan ere aurkitu ditugu bai gurasoen eta baita irakasleen aldetik (§2.5.).

Hala ere, nahiz eta kontrako jarrera horiek aurkitu haur hizkera erabiltzen dela badakigu. Jarraian, haur hizkerak zein funtzio dituen, noiz erabiltzen den, nork erabiltzen duen eta nola erabiltzen den aztertuko dugu, gero gure ikerketan ere egingo dugun moduan (§2.5.).

Owens-ek eta Fernald *et al.*-en arabera (*apud* Elizagoien, 2014: 3), haur hizkerak hiru funtzio betetzen ditu:

- Haurren atentzioa bereganatu eta mantendu.
- Afektuzko lotura bat mantendu.
- Helduaren eta haurren artean komunikazioa eman dadin ziurtatu, zenbaitetan gure hitz egiteko modua (komunikazio berbala edo ez berbala) sinplifikatuz edo haurrenara egokituz

Zenbait autore haur hizkera zergatik erabiltzen den aztertzen saiatu dira, horien artean Zubiri (2002), berak hiru eremu aztertu ditu: noiz erabiltzen den, hau da, helduak eta haurrek elkarrekin duten harremanetan zein egoeratan eta zein unetan erabiltzen den, nork erabiltzen duen eta bukatzeko, nola erabiltzen den.

Noiz erabiltzen den galderari erreparatuz, Zubirik (2002) haurren adina kontuan hartzen dela aipatzen du, haurren garapenaren arabera modu batean edo bertzean jokatuko baitu helduak. “Haurren adinaz edo garapenaz ari

---

garenean adin edo garapen kronologikoaz eta baita linguistikoaz ere ari gara” (Zubiri, 2002: 22).

Juan Jose Zubiriren ideiekin jarraituz (2002), helduek hizkera mota hau hurrek hizketan ez dakiten bitartean erabiltzen omen dute (aro aurrelinguistikoan). Hitz egiten hasten diren momentuan, gutxi gora behera, bi urteren inguruan, hizkera mota hau erabiltzeari uzten dio helduak eta helduen hizkera erabiltzen hasten da. Hori dela eta, haur hizkera adin muga bateraino erabiltzen dela aipatzen du Zubirik. Dena den, nahiz eta haurra aro linguistikoan egon, une berezietan ere erabiltzen ahal den hizkera dela erakutsi digu. Baina zergatik gertatzen da hori? Gure ikerketan galdera hori aztergai izango dugu (§2.1.5).

Nork erabiltzen duen galderarekin jarraituz, helduek erabiltzen dutela bistakoa da. Baina helduen artean badaude jarrera eta iritzi ezberdinak, hala nola, haur hizkera erabiltzearen alde agertzen diren batzuk eta erabiltzearen kontra bertze batzuk aurretik ikusi dugun moduan (§1.3.). Zubiriren arabera (2002), hizkera hau erabiltzen dutenen artean, gurasoak dira lehendabizikoak hizkera hau alde batera uzten dutenak, helburu didaktikoa baitago jokabide honen atzean, erakutsi nahia alegia. Aitatxi-amatxiak dira berriz, hizkera hau beranduen uzten dutenak, lotura afektiboa dago erabilera horren atzean (Zubiri, 2002).

Hizkera hau nola erabiltzen den erreparatuz, zenbait ezaugarri agertzen dira maila fonetikoan, morfosintaktikoan eta lexikoan, aurrerago ezaugarrietan sakonago ezagutuko ditugunak (§1.5.1.).

Gure inguruan haur hizkera nola erabiltzen den ikusi baino lehen, haur hizkera munduan aztertuko dugu, guk komunikatzeko ditugun erak eta bertze herrialde batzuetako pertsonak dituztenak ez baitira berdinak. Ikus dezagun zertan desberdintzen diren eta nolako eragina duen bakoitzak hizkuntzaren jabeakuntzan.

## **1.4. Haur hizkera munduan**

### *1.4.1. Nolakoa da haur hizkera munduko lurralde desberdinetan*

Helduok hurrei hitz egiterakoan erabiltzen dugun hizkera motaz ari garela, ikus ditzagun munduko herrialde desberdinetan haur hizkerak dituen ezaugarriak,

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

izan ere, herrialde batetik bertzera ohiturak aldatzen dira, gurean herri batetik bertzera aldatzen diren bezala.

Aditu batzuen arabera, haur hizkera ez da fenomeno unibertsala. Ochs eta Schieffelin (1984) ikertzaileen arabera, kultura ezberdineko pertsonekin egindako ikerketetan ezberdintasunak ematen direla ikusi dute. Hauen arabera, Ginea Papuako Kaluli tribuan ez dute haur hizkerarik erabiltzen, hala ere, Kaluliko haurren hizkuntzaren jabekuntza ez da urria.

Kaluli tribuan gertatzen dena ikusi ondoren, interesgarria iruditu zaigu Owens-ek aipatu dituen bertze kulturetako komunikazioak nolakoak diren ikustea.

Indioen kasuan, helduek hurrei erraten dieten guztia errepikatu behar izaten dute hurrek, nahiz eta erraten ari diren hori ez duten ulertzen, ulermena bigarren maila batean gelditzen da. Australiako eta Indonesiako kasua bertzelakoa da, komunikazio berbala eta ez berbala alde batera uzten dute eta esanahian zentratzen dira.

Desberdintasun kultural eta sozio-ekonomiko hauek gizarte bakoitzeko baloreak eta sinesmenak islatzen dituzte beraz, kontuan hartu beharrekoak dira (*apud* Elizagoien, 2014: 6).

Egoerak direla medio, aurretik aipatu dugun bezala, badaude gaur egun giza estimulurik gabe hazten diren haurrak. Gilsanzen arabera (2012), kasu hauetan hazkuntza motelagoa ematen omen da eta gainera, helduaroan pertsona horrek zailtasunak izan ditzake besteengan konfiantza izaterako orduan.

Beraz, haur hizkera erabili edo ez erabiltzearen inguruan erran dezakegu, honen erabilera onuragarria izango litzatekeela. Gilsanzen (2012) ustez, haurrak garapena optimoagoa izango luke eta harremanak asegarriagoak. Herrialde guztietan haur hizkerak zenbait ezaugarri komun dituela erran dezakegu, jarraian aztertuko dugun moduan.

#### *1.4.2. Ezaugarri Orokorrak*

##### *1.4.2.1. Hizkuntza berbala*

Ansorenak (2002) dio hizkuntza guztiek ezaugarri bera dutela, hau da oso konplexuak direla. Hori dela eta, hizkuntzak bere bideak asmatu ditu, hurrek hizkuntza era egokian ikas dezaten.

---

Haur hizkerak bere ezaugarri bereziak ditu, euskaran ez ezik, bertze hizkuntza batzuetan helduek haurrekin hitz egiterakoan erabiltzen dituzten baliabide estrategikoak (Zubiri, 2002).

Rondal-ek eta Serra *et.al.*-ek (*apud* Zubiri, 2002: 18-19) ezaugarri orokorren zerrenda egin zuten:

- Fonetikoki, haur hizkera ebakera edo ahoskera zuzen eta garbikoa izaten da. Tonuaren aldetik, markatuagoa edo enfatikoagoa eta eritmoaren aldetik, pixka bat motelxeagoa.
- Morfosintaktikoki, helduei zuzentzen zaizkienak baino sinpleagoak izaten dira esaldiak, eta gramatikalki zuzen eraikiak.
- Lexiko edo hiztegi aldetik, hiztegi berezia erabiltzen da, eguneroko egoera hurbilei loturik.
- Pragmatikoki, helduek bere hizkuntza maila haurrak duen hizkuntza gaitasunera egokitzen du. Haurraren hizkuntza mailak gora egitean helduak bere hizkuntzaren maila igotzen du.

Ezaugarri hauek denak betetzen dituzte gure inguruko hizkuntza guztiek. Zubiriren arabera (2002), helduek haurrei zuzendutako hizkera dela eta, duen eginkizuna kontuan hartuz, paper zuzentzailea, pedagogikoa eta didaktikoa betetzen du.

#### 1.4.2.2. *Hizkuntza ez berbala*

Pertsonok komunikatzeko orduan, hizkuntza berbalaz baliatzen garela ikusi dugu, baina horretaz gain ez al dugu hizkuntza ez-berbala edozein momentuan erabiltzen? Askotan ez ahal dugu hizkuntza ez berbalarekin hitzekin baino gehiago adierazten erran nahi dugun hori? Haurrei zuzentzen gatzazkienean ere erabiltzen ditugu.

Haur hizkeraren inguruan egindako dokumentu, artikulu edo liburuak kontsultatu ondoren, hizkuntza ez berbala inon agertzen ez dela ikusi dugu. Hala ere, San Vicenteren lanean (2014) Robert E. Owens-ek hizkuntza ez berbalari buruz egindako elementuen zerrada batekin egin dugu topo, gure ustez, hizkuntza ez berbalak hizkuntza berbalak bezainbesteko garrantzia duenez, gurera ekarri nahi izan dugu.

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua



Robert E. Owens-ek egin zuen zehatz mehatz elementu hauen zerrenda: (*apud* San Vicente, 2014: 17-18).

- Keinuak: Helduek hurrekin hitzen bidez komunikatzeaz gain, zenbait keinu erabili ohi dituzte, batez ere umearen bizitzako lehenengo urtean.
- Begirada: Heldu bati zuzendutako begirada segundo gutxi batzuetakoa izan ohi da, hori luzatzeak bestelako sentimendu sakonagoak eragin baititzake. Umeekin alderantziz gertatzen da. Owens-ek egindako ikerketa batean honakoa erakutsi omen zuen: Hurrei zuzendutako helduen begiradak 30 segundo baino luzeagoak izaten omen dira. Jolas egoeretan, denbora hori luzatu egiten da. Helduak, bestalde, umeei begirada nora zuzentzen duten adi izaten dira, horrela, haurraren intereseko gaiak mintzagai izateko. Helduaren begiradan gertatzen diren bariazioak edo aldaketak, umeen atentzioa bereganatzeko helburuarekin burutzen dira.
- Aurpegiko espresioak: Haur hizkeraren osagarri izan ohi dira. Horien funtzioak anitzak dira. Gehienetan zerbaiti hasiera emateko, zerbait seinaltatzeko edo umea zerbait egitera bultzatzeko erabiltzen dira. Honakoak aipa litezke: aho eta begiak irekitzea, bekainak goratzea, burua alde baterantz makurtzea, etab. Badira espresio baten bidez denbora luzez adieraz daitezkeen egoerak ere: irri baten bidez, esaterako, inolako arazorik gabe gauzatzen ari den egoera bat adieraz daiteke. Alderantziz, kezka egoera bat dagoela adierazteko honako espresioak erabili ohi dira: begiak zabal-zabalik mantentzea, bekainak zuzen edota ahoa erdi-irekita. Helduek era naturalean erabiltzen dituzten espresio horiek umearen atentzioa erakartzea ahalbidetzen dute, baita helarazi nahi zaizkion mezuak hobeto ulertzea ere.
- Buruaren mugimenduak: Helduek umeei zuzentzen zaizkien mezuekin burua mugitzeko joera izan ohi dute, hala nola, astintzekoa, makurtzekoa edo alderatzekoa. Gehienetan, harridura adierazteko erabiltzen dira.
- Hurbiltasuna: Hurbiltasunak norberaren barne-espazioaren erabilerari egiten dio erreferentzia, hau da, bakoitzak daukagun espazio pertsonal eta intimoari. Helduen artean espazio hori elkartrukatzeko hautua

gutxitan egiten dugu, baina umeeekin hitz egitean muga hori ez da existitzen, umeak espazio pertsonal hori izango ez balu bezala jokatzeko dugu, hurbiltasun handiarekin elkarreraginez.

“Guraso eta seme-alaben arteko hitzik gabeko harremanak” izeneko artikuluan Gilsanzen (2012) arabera, hitzik gabeko komunikazio gaitasun hau oso garrantzitsua da harremanen oinarria modu egokian eraikitzeko eta berez ematen diren jokaeraren ondorioz garatzen dira. Hala nola, pardela aldatzean ematen diren kontaktu bisualen, elkar laztantzearen eta jolas sinpleak egitearen ondorioz.

Beraz, Gilsanzen ustez (2012), ez hitzezko komunikazio hau sustatu beharko litzateke, bai lehen urteetan eta baita haurtzaro osoan zehar ere, familiako harremanak hobeagoak izan daitezkeen.

Azken batean, zeinuzko adierazpenek izaera unibertuala daukate eta gurasoei laguntzen die haurraren egoera afektiboak interpretatzen eta erantzuten (Larrea, 2007: 83).

### **1.5. Euskal haur hizkeraren ezaugarriak**

Gure kulturari erreparatuz, urte batzuk atzera egiten baditugu, euskara zenbait esparrutan, administrazioan, eskolan eta beste esparru formaletan bazterturik egon da, hala ere, mendeetan transmisioari esker, euskara eta euskal kultura transmititu egin dira. Nahiz eta transmisio horretan etenak egon diren, aurreko belaunaldiak hizkuntza eta kultura transmititu diete ondorengo belaunaldiei (Aranguren, Arburua *et al.*, 2014).

Haur hizkeraren transmisioa ere modu honetan eman da gure ikerketan ikusiko dugun bezala, guraso batzuek aipatu baitigute beraiei betidanik, haurtzaroan, haur hizkeraz hitz egin dietela eta orain beraiek ere beraien seme-alabei horrela egiten dietela (§2.1.5.).

Juan Inazio Lizarragak (2010) *Haurren munduko hiztegi txikia* liburuaren hitzaurrean honela dio:

Euskararen inguruan lan handia egin da azken hamarkada hauetan. Hizkuntza gaurkotu egin da, modernizatu, eta gizartearen ia eremu guztietara zabaldu da bere erabilera. Baina bada hizkuntzaren alderdi bat gure gurasoen garaian izugarri aberatsa zena eta, gaur egun, aldiz, murriztu samar gelditu zaiguna. Euskara arruntaz, lagunartekoaz,

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

etxeoaz ari naiz. Gauza txikiez eta egunerokoez betetako euskara honen barrenean leku berezia dauka haurren munduak (Lizarraga, 2010: 13)

Haur hizkerak bere ezaugarriak dituela ikusi dugun moduan (§1.4.2.), euskal haur hizkerak ere bere ezaugarriak ditu. Zubirik eman zituen ezaugarri eta adibide hauek banan-banan bildu ditugu: (*apud* Kasares, s.d.: 35).

- Fonetikoki kontsonanteak (batez ere txistukariak) sabaikatu edo busti egiten dira: *esku* > *exku*, *zakur* > *xakur*, *itsusi* > *itxuxi*, *motz* > *motx* etab. eta horrela zerrenda luze bat osatu genezake.
- Morfosintaktikoki, aditz laguntzailea ezabatzeko joera dago edo sintagmak hasieran eta bukaeran errepikatzeko joera dago. Hala nola, *nor etorriko apapa?; nork nahi du appapa joan, nork?*
- Hiztegiari dagokionez, izaera onomatopeikoa duten hitz anitz daude. Silaba bat errepikatuta edo antzekoak diren silabez osatuak direnak. Besteak beste, *tax-tax* (jo), *ttalo-ttalo* (txaloa jo), *txista* (ziztatu), etab.
- Hizkuntzaren aldetik, haur hizkeran ohikoak dira hitz bikoitzak, (*ttalo-ttalo*, *kotto-kotto*, etab.) aunitz onomatopeikoak (*ñan-ñan*, *tas-tas*, etab.), metagramak (hitzaren zati bat errepikatua dutenak), efektu jostagarria eragiten dutenak (*ttanttikitin-ttanttikitin*, *ttittili – ttattala*, etab.).

Ikus ditzagun orain berriz, Zubirik (2002) emandako ezaugarri hauek nola erabiltzen diren.

Maila fonetikoari dagokionez, aipatu, hiztunak hizkera hau erabiltzeko orduan, askatasun handia duela nahi duenean erabiltzeko eta nahi ez duenean ez erabiltzeko. Horren atzean haurrekin sortu edo lortu nahi den harreman-mota egongo litzateke (Zubiri, 2002).

Horren adibide, hiztun batek zenbait kontsonante sabaika ditzake eta beste zenbait ez, edo une batean busti dezake eta beste batean ez.

Hona hemen Zubiriren (2002: 24) adibide batzuk:

- (1) a. *Putxu-putxu egin behar al duzu?* (1;03)
- b. *Sartu xorroan.* (1;05)
- c. *Behatxarekin egin horrela, Egoitz!* (1:05)

Maila morfosintaktikoari dagokionez, onomatopeikoak diren hitzak eta hizkera honetan erabiltzen diren hainbat hitz artikulurik gabe erabiltzen dira (Zubiri, 2002).

Hona hemen Zubiriren (2002: 25) zenbait adibide:

- (2) a. *Non da mu* (\* mua)?
- b. *Eman brun-brun* (\*brun – bruna)!
- c. *Nahi duzu ñañañan* (\* ñañañana)?

Hiztegi mailari dagokionez, hitz onomatopeiko ugari ditu hizkera mota honek eta baita hiztegi berezia ere. Orain arte egindako lanetan horren adibide diren zerrenda ugari aurkitu ditzakegu, haur hizkeraren inguruan egindako lan gehienak honetan oinarritzen baitira, haur txikiekin hitz egiterakoan helduek erabiltzen duten hiztegi berezian. Aipatu, hiztegi berezi hau herri batetik bestera aldatzen dela eta toki bakoitzean hitz desberdinak aurki ditzakegula. Gure ikerketan Donezteben erabiltzen diren hitzei ere lekutxo bat egingo diegu (§2.1.5.).

Aipatutako ezaugarriez gain, euskarak hurrekin euskarazko hitzak erabiltzerako orduan hainbat bide erabiltzen ditu, horien adibide dira, errepikapen onomatopeikoak eta errepikapen indargarriak.

Santistebanen definizioa hartuz, errepikapen onomatopeikoak:

Hots naturalak-eta hain naturalak ez diren baina gaur egun natural-natural jotzen diren hainbat tresna eta aparatuenak-imitatuz unitate lexikalak sortzean datza prozesua eta horrela sorturiko unitate lexikalak dira (*apud* Kasares, s.d.: 38).

Soinu berak hizkuntza ezberdinetan erreprodukzio onomatopeiko ezberdina du. Adibidez, munduko leku desberdinetan oilarrak egiten duen soinua desberdin erraten da: gazteloniarrek *quiquiriqui*, frantsesdunek *cocorico*, ingelesdunek *cock-a-doodle-doo* eta euskaldunek *kukurruku* (Kasares, s.d.).

Arranz-en arabera, haurren hizkeran aunitz daude horrelako hitz bikoitzak: *kix-kix*, *kurrin-kurrin*, *ñan-ñan*, *tas-tas*, *ttaka-ttakaa*... Onomatopeiak haurren munduan anitz daudela ikus dezakegu, ipuinetan edo abestietan etengabe

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

agertzen baitira. Horren adibide dugu, Santistibanek, Azkueren *Euskalerrriaren Yakintzatik* jasotako jolas batean erabiltzen diren hots onomatopeikoak dira (*apud Kasares, s.d. : 38*).

(3) “Arri arri mandoko,  
 Bihar Iruñerako,  
 Etzi Tolosarako.  
 Handik zer ekarriko?  
 -Saski bete mokordo.”

Abestiak eta ipuinak eskolan egunerokotasunean erabiltzen direnez eta Haur Hezkuntzan bereziki, leku handia dutenez, Doneztebeko eskolan hitz onomatopeiko hauen erabilera ematen ote den aztertuko dugu gure ikerketan (§2.1.5.).

Errepikapen indargarriak berriz, bikoizten den hitza izenondoa edo aditzondoa denean ematen da. Kasaresek (s.d.: 39) emandako adibideak dira honakoak, *amatxi xahar-xaharra dago, ile motz-motz hori, zuzen-zuzen jokatu duzu, goxogoxoa dago, etab.*

Zubirik (2002) dionez, haur hizkeraren erabilera hautazkoa da, honen erabilera helduaren nahiari eta borondateari atxiki behar zaio, haur hizkeraren ezaugarrien agerpena ez da erregularra eta sistematikoa, askotan nahasian eta tartekatuz emateko joera baitago eta haur hizkeraren erabilerak muga batzuk ditu, ez da nolana edo noiznahi erabiltzen. Guk ere gure ikerketan ezaugarri hauek betetzen diren aztertu dugu (§2.1.5.)

Jarraian Zubiriren bertze zenbait adibide (2002: 27) agertzen dira batzuetan haur hizkera, hizkera arruntarekin nahasia joaten denaren seinale.

(4) a. *Non da ttatta? Non da zapata?* (1,03)

b. *Erori egin da! Punpa egin du!* (1,07)

Hizkera mota hau etxe giroan eta etzekoen inguruan erabili ohi dela ikusi dugu (Zubiri, 2002: 29) baina hezkuntzan zer leku betetzen du?

---

## 1.6. Hizkuntzaren jabekuntza 0-3 urteko etapan

### 1.6.1. Haur Hezkuntza Curriculumarekin lotura.

Nafarroan, 0-6 urte bitarteko haurrentzat ikastetxe ezberdinak aurki ditzakegu: udalaren titulartasunekoak diren haur eskolak, titulartasun pribatuko haur eskolak eta ikastetxe publiko eta pribatueta bi urteko haurrentzako geletan.

Haur Hezkuntzako curriculumak hartzen badugu, ikus dezakegu tarte bat egiten zaiola hizkuntzari. Bertan agertzen diren edukiak eta helburuak aztertzea interesgarria iruditzen zaigu gure gaiarekin lotura duelako.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak Haur Hezkuntza etapa esparru berri moduan onartu zuenetik, nortasun berezia zuen etapatzat definitu zuenetik alegia, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren esku geratu zen abenduaren 29ko 1630/2006 Errege Dekretuan aurkezturikoa egokitu eta moldatzea (Nafarroako Hezkuntza Departamentua, 2007: 2). Horregatik martxoaren 19an 23/2007 Foru Dekretua onartu zen, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculumak ezartzen duena. Hala ere, lehenengo zikloarentzat ez zen inolako edukirik zehaztu. Hori dela eta, gaur egun, Haur Eskola bakoitzaren esku dago bigarren zikloko eduki horiek hartu eta zein modutan landuko dituzten zehaztea.

Hiru arloetatik hirugarrenari egingo diogu lekua, ahozkoikasunari lotuta dagoena.

Ahozko hizkuntzak aparteko garrantzia du etapa honetan, ikasi, jokabidea erregulatu, eta bizipenak, sentimenduak, ideiak nahiz emozioak adierazteko baliabide nagusia baita. Ahozko hizkuntzaren bidez, elkarreragin batzuekin, gero eta konbentzionalagoak eta konplexuagoak diren erabilerak eta moduak ikasiko dituzte (Nafarroako Hezkuntza Departamentua, 2007: 32).

Beraz, ikus dezakegu curriculumak ahozko hizkuntzari garrantzia ematen diola, baina ez du inon aipatzen haur hizkeraren inguruko ideiarik. Gainera, hizkuntza lantzeak zer onurak dituen aipatzen ditu eta hori nola landu dezakegun. Hala ere, eskolan erabili behar den hizkuntzari egiten dio erreferentzia eta ez du askorik aipatzen haurrek etxetik ekartzen duten hizkuntzaren inguruan. Beraz, eskolaren esku-hartzea nolakoa den ikusi beharko genuke lehendabizi, gero ikasleen beharrei erantzun bat emateko.

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

### 1.6.2. Eskolaren esku-hartzea

Gaur egun ohikoa bihurtu da 0-3 urte bitarteko haurrak eskolara joatea. Etapa horretan familiak garrantzia handia dauka baina pixkanaka pixkana bertze eremuek ere garrantzia hartzen dute, horien artean dago eskola. “Azken batean, eskola izan ohi da haurraren lehenengo sozializazioa familiaratik at” (Larrea, 2007: 140). Burutu diren ikerketek erakutsi dute, haurrak lehenengo urte horietan duten gaitasunengatik, 0-3 urte bitarte etapa oso garrantzitsua dela hizkuntzez jabetzeko eta Fishmanek (2009) familia erabilera eta kanpoko erabilera bereizi zituen, familiari, eguneroko harremani, etab. garrantzia gehiago emanez.

“Familia bidezko transmisioak garrantzi handia izaten jarraitzen du. Umeentzat familia da erreferente eta babesleku nagusia; emozioak, baloreak eta sentimenduak transmititzeko eta jasotzeko gune ezinbestekoa” (Aranguren, Arburua *et al.*, 2014: 7).

Kontuan hartuta etapa horretan zein garrantzitsua den lehenik familia eta gero eskola, haur eskolak zein familiak haurraren garapenean eragina izango dute eta haurraren esku-hartuko dute.

Maia eta Larreak *Euskara batua eta euskalkiak Haur eta Lehen Hezkuntzan* lanean (2008: 104) eskolak egin beharreko esku hartzearen artean honako ezaugarri hauek aipatzen dituzte hizkuntzari lotuak daudenak:

- Eskolak jendarteari erantzun behar dio, eta hark garrantzitsutzat jotzen dituen kultura-ondareak transmititu behar ditu.
- Eskolako lana inguruaren ezaugarrietatik abiatu behar da, eta, hizkuntzari dagokionez, eskola non den, hango ezaugarri soziolinguistikoak aintzat hartu behar dira.
- Eskolan hurbilekotik hasi behar da (beraz, hizkuntza-kontuetan euskalkitik, inguru euskalkidunetan, baina besteetan ez da zertan hala egin), eta gero pausoka-pausoka urrutikora igaro.

Aguirre *et al.*ek egindako aipamen batean honakoa diote:

Es un principio psicopedagógico reconocido basarse en lo conocido, es decir, partir de la lengua que ya se tiene y se conoce para aprender una nueva. [...] Parece justo apoyarse en la que el niño trae, como parece igualmente pedagógico la introducción de la lengua familiar y sus registros a nivel de escuela, bien los emplee el profesor, bien el alumno, así como establecer los momentos de empleo y de análisis. La observación y toma de

---

conciencia de esta lengua o de sus registros, por parte del alumno o el profesor, supone, además de la confianza que proporciona, el camino más adecuado para el conocimiento de las posibilidades que la lengua encierra (Apud Larrea eta Maia, 2008:108).

Hala ere, dakigun bezala askotan garrantzia handiagoa ematen zaio hizkuntza estandarra erabiltzeari eta haurrek etxetik dakarten hizkuntzari baino.

Beraz, Eskola non den, hango ezaugarri soziolinguistikoak aintzat hartu beharko genituzke. Horretaz gain, bertako euskalkia lantzea ere egokia izango litzateke. Doneztebek bere euskalkia duela kontuan hartuz, eskolan Haur Hezkuntzan, irakasle gehienak herrikoak edo zonaldekoak direnez, gelan euskalkia erabiltzen dutela ikusi izan dugu, haurrek beraien artean erabiltzen duten bezala eta horrek gure ingurunearekin lotura estuagoa eta hurbilagoa izatera eramaten gaitu.

Beraz, eskola haurraren inguruko ezaugarrietatik abiatu behar baldin bada, kontuan hartu beharko dugu etapa horretan zenbait haurrek ama-hizkuntza etxetik dakartela eta gurasoek edo aitatxi-amatxiek haur hizkera erabil dezaketela. Zubirik (2002) aipatu bezala (§1.3.), 2 urtera arte hizkera mota hau erabiltzeko joera baitago.

### **1.7. Haur hizkera eskolan**

Lehendik aipatu dugun bezala, zenbait haurrek etxetik haur hizkera ekarriko dute eta haur hizkera alde batera utzi eta hizkera arrunta soilik erabili beharrean, haur hizkera kontuan hartzea egokia litzateke. Modu honetan, haurarentzat hain garrantzitsuak diren bi eremuen arteko lotura estuagoa izango litzateke.

Hala ere, kontuan hartuta honen erabilera hautazkoa dela eta ez dela erregularra (§1.5.), eskolaren kasuan, irakaslearen eskuetan geldituko litzateke erabili edo ez erabili erabakitzea.

Ikusi dugun moduan (§1.1.) haur hizkera erabiltzeak hizkuntzaren jabekuntza izaten laguntzen dio umeari, errepikapenak erabiliz, bere inguruneke hizkuntza erabiliz, etab. (§1.5.).

Haur hizkera, haur txikiekin erabiltzen den hiztegi horretara soilik mugatzen ez dela ikusi dugu, nahiz eta Doneztebeko irakasleak haur hizkera horrekin lotzen

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua



duzen soilik (§2.5). Hori dela eta, haur hizkeraren ezagutzak zabaltzeko, hezkuntzan lan egingo duten profesionalek formakuntza izan beharko lukete.

Gainera, argitaratutako haur hizkeraren bilduma gehienetan, Haur Hezkuntzan hezitzaileek erabiltzeko aproposak direla irakur dezakegu, hala nola, *Xaldun Kortin. Jolastu gurekin* liburuan (2014):

Haurrekin lotutako ahozko ondarearen bilketan sakondu nahi duten guztiei zuzendua dago liburua. Haur hizkeraren hiztegiari esker 0-3 urte bitartean diharduten hezitzaileak modu egokian mintzatuko dira beren haurrekin, hizkuntzaren transmisioan horren garrantzitsua den maitasuna eta lotura azaltzeko haurrekin bereziki erabiltzen diren hitzak erabiliz (Aranguren, Arburua *et al.*, 2014: 5).

Lizarragaren *Haurraren hiztegi txikia. Hitzak, esaerak eta kantak* liburuaren aurkezpenean (2010) berriz, honela dio:

*Nafarroako Gobernuak euskara teknikariek gogoeta egin zuten euskarazko haur hizkuntzaren ezaugarriak buruz eta material bereziak prestatu zituzten. Euskaraz nahiz elebizi ari diren Udal Haurtzaindegietako eta Haur Eskoletako langileak prestatzeko lana da.*

## **2. ATAL PRAKTIKOA. DONEZTEBEN HAUR HIZKERAK DUEN LEKUA**

Gure ikerketa Donezteben burutuko dugunez, Donezteberen deskribapen txiki bat egitea beharrezkoa iruditzen zaigu. Donezteberen zenbait datu emango ditugu batez ere, euskararekin zerikusia dutenak, gure helburuetako bat Donezteben haur hizkerak duen egoera aztertzea izango baita gero gure lanaren ondorioak ateratzeko baliagarri izango zaiguna eta euskararen erabilerak horretan eragina izango du. Beraz, Donezteben euskarak zer nolako datuak dituen ikusiko dugu eta ondoren, gure ikerketan lortutako emaitzak azterturik hipotesi hau eta bertze zenbait hipotesi baieztatu edo ezeztatuko ditugu. Horretarako jarraian aipatuko ditugun datuak erabilgarriak izango dira.

Hasteko, Donezteben euskarak dituen datu orokorrak bildu ditugu, modu honetan euskararen egoera nolakoa den ikustek izan ere, euskara gero eta biziagoa dagoen lekuetan haur hizkera biziago egongo dela uste dugu eta herri erdaldunagoetan berriz ez hain bizirik. Modu honetan, Doneztebeko datuak ikertzeaz gain, inguruko herrietakoak ere ikertuko ditugu eta Doneztebe

---

euskarak duen egoerak haur hizkeraren erabileran eraginik duen edo ez ikusiko dugu.

Euskarak Donezteben duen egoera aztertzerako orduan, euskararen egoeraz gain, kontuan hartuko dugun bertze alderdi bat adina izango da, adinaren arabera ere desberdintasunak ematen baitira eta horrek eragina izango du edo ez haur hizkera erabiltzerako orduan. Donezteben adinaren arabera ematen diren aldaketen inguruko datuak ere islatuko ditugu emaitzen analisisian (§2.5).

Irakaskuntzari dagokionez, euskarak duen presentzia aztertuko dugu eta Malerrekan euskara sustatzeko eta honen barruan haur hizkera sustatzeko egin diren lanak aipatuko ditugu.

Bukatzeko, haur hizkera etxe giroan eta gero, hezkuntzan aztertuko ditugu. Planteatutako hipotesiak egiaztatu edo ezeztatzeke, zenbait elkarrizketa, behaketa eta grabaketa egin ditugu (§E1, §E2 ets §E3) eta horiek oinarrian izanik gure lanaren ondorioak aterako ditugu, hausnarketarako bidea emango digutenak.

## **2.1. Donezteben euskarak dituen datu orokorrak**

Doneztebe Nafarroako ipar-mendebaldean dagoen udalerrria da, Malerreko eskualdean kokatua dagoena. 2012ko erroldaren arabera, herriak 1694 biztanle zituen.

Honako hauek dira Doneztebeko udal barrutiarekin muga egiten dutenak: iparraldean, Sunbilla; ekialdean, Bertizarana; hegoaldean Donamaria eta Oitz; eta, mendebaldean, Elgorriagako udal barrutia.

Donezteben Malerreko mankomunitatea dago kokatua eta horren barruan Malerreko Euskara Zerbitzua dago.

Malerreko Euskara Zerbitzua 1990 urtearen inguruan sortu zen gizartearen arlo guztietan euskararen normalizazioa lortzeko helburuarekin. Malerreko Zerbitzu Orokorren Mankomunitatearen baitan dagoen zerbitzua da.

Malerreko Euskara Zerbitzua sortzearen arrazoiak honakoak dira:

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

1. Malerreka, eskualde hagitx euskalduna izan arren, euskara ez da bizitzaren arlo guztietan normaltasunez erabiltzen, izan ere, gaztelania anitz erabiltzen da eta zenbait eginkizunetan gaztelera bakarrik erabiltzen da.

2. Gure eskualdeko herritarren jarrera, oro har, euskararen aldekoa da, hau da, herritarrak bizitzaren arlo guztietan euskara erabiltzearen aldekoak dira.

Donezteben euskarak duen egoerari erreparatuz, 2010ko datuak kontuan hartuta, euskararen erabilera Donezteben honela banatzen da: Euskaldunak, %61,7 eta erdaldunak, %38,3.

Malerrekan euskaldunen proportzioa adinaren arabera 2010eko datuak kontuan hartuta honakoa da: Haurrak %83, gazteak %86,4, helduak %64,3 eta adinekoak %72,25. Beraz, haurrak eta gazteak euskara gehien erabiltzen dutenak direla ikus dezakegu, eskolaren eragina izan daiteke agian horren arrazoia.

Ama hizkuntza euskara dutenak, %61,33 dira ; gaztelania dutenak, %33,14; biak %5,09 eta besterik %0,44.

Ondorengo bi tauletan, euskararen erabilera neurtzeko, 2010ean Malerrekan egin zen Kale neurketako datuak bildu ditugu. Neurketa honetan karrikan ematen diren solasaldiak neurtu ziren, ez leku itxietan ematen direnak (tabernak, dendak, etxeak, etab.).

**1. Taula:** Euskararen erabilera Malerrekan  
Euskara Zerbitzua 2013ko plangintza

2010eko Kale neurketak %	GUZTIAK	
	Euskaraz	Gazteleraz
<b>Beintza-Labaien</b>	85,7	14,3
<b>Donamaria</b>	72,6	27,4
<b>Doneztebe</b>	61,7	38,3

<b>Eratsun</b>	62,9	37,1
<b>Ezkurra</b>	86,5	13,5
<b>Legasa</b>	64,2	35,8
<b>Narbarte</b>	57,9	42,1
<b>Oieregi</b>	41,9	58,1
<b>Oitz</b>	69,4	30,6
<b>Saldias</b>	74,3	25,7
<b>Sunbilla</b>	71,4	28,6
<b>Urrotz</b>	92,6	7,4
<b>Zubieta</b>	89,2	10,8
<b>MALERREKA</b>	73,7	26,3

1. Taulan ikus dezakegun moduan, euskararen erabilera urriena duen herria Doneztebe da Narbarte eta Oieregirekin batera. Aipatu Narbarten eta Oieregin etorkinen kopurua ugaria dela eta horrek eragina duela euskararen erabilera neurtzerako orduan. Donezteben ere etorkinen kopurua handia da baina herria handiagoa izanik, proportzionalki herri euskaldunagoa dela erran dezakegu. Doneztebe nahiz eta herri erdaldunena izan, euskaraz dakitenen kopurua dezentekoa da, beraz haur hizkera bizirik egon daitekeenaren hipotesia daukagu. Hori horrela den edo ez aurrerago ikusiko dugu beste zenbait datu batzuk ere kontuan harturik (§2.5.).

Dena dela, datu hauek azken urteetan izan duten bilakaera aztertzea interesgarria da haur hizkeraren erabileran euskararen egoerak eragina izan dezakeen edo ez aztertzeko. Horretaz gain, euskararen egoera adinaren arabera nolakoa den ikertuko dugu, egia bada euskara gehiago hitz egiten dutenek haur hizkera gehiago erabiliko dutela, hemengo datuak gure datuekin alderatuko ditugu.

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

**2. Taula:** Euskararen erabilerak Malerrekan urteetan izan duen bilakaera. Datuak ehunekotan.

Euskara Zerbitzua 2013ko plangintza

	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ADINEKOAK	GUZTIRA
1996	83	43	57	86	62
1998	79	54	61	75	65
2001	77,5	59,9	55,7	73,7	64,1
2006	76,4	82,5	60,6	81,8	70,8
2010	83	86,4	64,3	72,25	73,7

Helduen eta adinekoen zutabeen zentratzen bagara, horiek baitira haur hizkeraren erabilera aztertzeko interesatzen zaizkigun datuak, haur hizkera erabiltzen dutenak edo ez horiek izango baitira. 2.taulan ikus dezakegun moduan adinekoek, helduek baino gehiago erabil izan dute euskara urtez urte. Horrek transmisioan ere eragina izango du. Adinekoak izanik euskara gehiago erabiltzen dutenak, haur hizkera ere gehiago erabiliko dutela uste dugu eta hori izan da gure hipotesietako bat. Hala ere, hipotesi hori aurrerago baieztatu edo ezeztatuko dugu (§2.3.).

Euskararekiko jarrera eta iritziei dagokionez, Taller de Sociologiak egindako *Euskararen unibertsoa Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekan* 1999 ikerlana eta Aztikerrek egindako *Nafarroako Mendi aldeko euskaldunen alfabetatze jarrerak, joerak eta hautemateak*.2011 ikerlana. izango ditugu ardatz (Anduanga, 2012)

Ikerketa hauetako ondorio batzuek gure ikerketaren emaitzak aztertzerako orduan eragina izango dute:

- Malerrekako biztanleen %85,4k dio euskara ahalik eta gehienetan erabiltzen du.
- Doneztebe da eskualdeko herririk erdaldunena.
- Familia eremua oso garrantzitsua da herritarrentzat, izan ere, bertan ikasten da hizkuntza eta bertan hartzen dira hizkuntzarekiko ohiturak.

---

Irakaskuntzari dagokionez, Malerrekan honako herrietan daude ikastetxeak: Beintza-Labaien, Doneztebe, Ituren, Legasa, Narbarte eta Saldiasen. Ikastetxe guztietan D eredia eskaintzen da, baina Doneztebeko San Migel eta Mendaur ikastetxeetan A eta B ereduak ere eskaintzen dira. Hala ere nagusitzen den eredia D eredia da.

Donezteben Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko eskola egon arren, Askin Haur Eskola ere badago, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa eskaintzen delarik. Eskolan euskaraz mintzatzen zaie haurrei. Aurrerago nire ikerketan ere lekua izango du Askin Haur eskolak, bertako irakasleek haur hizkerarekiko duten jarrera eta erabilera aztertuko baitugu (§3.1.).

## **2.2. Haur hizkerarekin lotutako lanak**

Malerrekan haur eta gaztetxoaren artean, bai guraso edo aitatxi-amatxien artean euskara sustatzeko lana egin da, lehen aipatu dudan bezala Malerrekako Euskara Zerbitzua aritu da horretan gehienbat. Modu honetan, zenbait liburuxka argitaratu dituzte Nafarroako zenbait toki entitatek. Horren adibide dira, *Duzun onena* (2013), *Jolastuko gara* (2013) eta *Bakoitzari berea* (2013) izeneko liburuxkak. Bertan familientzat euskaraz aritzeko zenbait argibide, aholku, etab. plazaratzen dira, euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin. Horrekin batera haur hizkerari ere leku bat eskaintzen zaio. Honela dio Nafarroako zenbait udal eta mankomunitateek sortutako liburuxkak:

“Hizkuntza guztiek sortu dituzte haurrekin solas egiteko hitz errazak, laburrak eta goxoak. Horien helburua da hizkuntza ikasteko prozesua erraztea, haurra hizketan hasi bitartean; hizketan hasten denean gutxinaka haur hizkera erabiltzeari uzten zaio. Euskarazko haur hizkeraren zerrendatxo hau jartzen dugu zuen eskuetan, ezagutu eta, nahi izanez gero, horretaz balia zaitezten.” (Nafarroako hainbat toki entitate, 2003: 20)

Jarraian haurrekin erabiltzeko hiztegi bereziaren zerrenda luze bat eskaintzen digute, gai honen inguruan hitzen zerrenda bat baino ezer gutxiago egin den seinale. Hala ere, gurasoentzako material lagungarria eskaintzen dute haurrekin erabili ahal izateko, abestiak, jolasak, etab. Horietan haur hizkeraren presentzia ere antzeman dezakegu. Adibidez, Nafarroako zenbait toki entitatek

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

sortutako “*Jolastuko gara*” (2003: 19) liburuxkaren igarkizun bat aurkezten digute, honela dioena:

(5) “Txango, txango, txango

Muxu bat emango

non dago, non dago

Ez dizut esango.”

Umeari hau abestu ondoren, muxu bat emango diogu. Kasu honetan Komunikazio berbalarekin batera, ez berbala ageri zaigu eta afektua bilatzeko helburuarekin egiten dela esan dezakegu, beraz hizkuntza ez berbala, haur hizkeraren ezaugarrien barruan sartu duguna (§1.4.2.2.), hizkera honen barruan sartzen dela ikus dezakegu eta helduek hurrei zuzentzerakoan asko erabiltzen dutela.

Aipatu Nafarroako Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko IKA euskaltegiok sorturiko *Etxetik Plazara* (1994) liburuak ere lekua egiten diola haur hizkerari, hala ere, egindako aipamen txikia, hiztegiarena da.

*Malerreka Solasea* (Apalauza eta Lakar, 2008) liburuan, gure aitatxi-amatxik erabiltzen zuten haur hizkera ageri zaigu, hori aurreko belaunaldian haur hizkera oso bizirik zegoenaren seinale da. Gaur egun horrela izango al da?

Horretaz gain, *Xaldun Kortin. Jolastu gurekin* liburuan (Aranguren, Arburua, et al. 2014) haur hizkerak badu bere lekua. Azken liburu hau da argitaratu den berrienetarikoa eta oraindik ere haur hizkerari lekua egiten diotela ikusi dezakegu, beraz, haur hizkeraren transmisio bultzatzen jarraitu nahi da.

Honekin ikus dezakegu, zenbait kasutan hiztegi hutsera mugatzen den arren, haur hizkera indartzeko materiala egin dela Donezteben eta bere inguruan.

### **2.3. Gure ikerketa**

Haur Hizkerari buruzko zenbait dokumentazio eta txosten irakurri eta aztertu ondoren, honi buruz egindako aipamenak praktikan ematen diren ikustea interesgarria iruditzen zaigu. Horretarako, Doneztebe hartuko dugu ikerketaren erdigune bezala eta bertan eramango dugu aurrera gure ikerketa.

---

Ikerketa bi eremutan eraman dugu aurrera, alde batetik etxe-giroan eta bestetik, eskolan. Horren arrazoia, gehienbat etxe-giroan erabiltzen den hizkera dela kontuan hartuz, Donezteben ere haur hizkeraren erabilera etxe giroan ematen den eta bertako biztanleek haur hizkerarekiko duten jarrera ezagutu nahi izan dugu. Bestalde, eskolan haur hizkera aztertzearen arrazoia, etorkizunean irakasle izango garenez, hezkuntza munduan haur hizkerak lekurik bat ote duen ikusi nahi izan dugu. Izan ere, gure lanaren proposamena hori da, haur hizkerak hezkuntzan zer leku betetzen duen ikustea eta hizkera hori landu beharko litzatekeen edo ez hausnartzea.

Horretarako, orain arte eman ditugun datuak kontuan izanik, hainbat hipotesi planteatu dizkiogu geure buruari eta gure ikerketan lortu ditugun emaitzekin baieztatu edo ezeztatuko ditugunak. Hala ere, lehenik hipotesi hauek planteatzera zerk eraman gaituen aztertuko dugu.

Etxe giroari dagokionez, hasteko, haur hizkerak Donezteben presentziarik ote duen ikusi nahi izan dugu. Herri euskalduna izanik, haur hizkera bizirik egongo dela izan da gure hipotesietako bat. Izan ere, zenbat eta herri euskaldunagoa izan, haur hizkera orduan eta biziago egonen dela pentsatzen dugu. Hori izango da gure lehendabiziko hipotesia. Ondoren, baieztatuko edo ezeztatuko dugu hipotesi hau (§2.5.).

Gainera, haur hizkera etxean erabiltzen dela pentsatzen dugu, izan ere, Zubirik (2002) aipatu duen moduan, haur hizkera etxe-giroan erabiltzen den hizkera da eta Donezteben ere horrela den azertu nahi izan dugu, hau gure bigarren hipotesia izango delarik.

Haur hizkeraren erabileraren inguruan, Owens-en (2003) eta Fernald *et al.*-en (1985) ustez, haur hizkeraren funtzioak hiru direla ikusi ditugu (§1.3.). Guk ere Donezteben haur hizkeraren erabilera, beste funtzioen artean (ohitura edo haurrarentzat errazagoa delako) afektuzko lotura bat mantentzearekin lotzen den ikusi nahi izan dugu. Beraz hori izango litzateke gure bigarren hipotesia.

Horretaz gain, erabiltzen dutenen artean, Zubirik (2002) helduak aipatu ditu. Doneztebeko biztanleen artean euskararen erabilerak dituen datuak ikusi ondotik (§2.1.1.), euskara gehien erabiltzen dutenak adinekoak direla ikusi dugu

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua



---

eta hori benetan hala gertatzen den ikusi nahi izan dugu. Beraz, hori izanen da gure laugarren hipotesia.

Haur hizkeraren erabilerarekin jarraituz, Zubiriren arabera (2002) helduek hizkera hau haurrak hizketan ez dakien bitartean erabiltzen dute, bi urteren inguruan helduen hizkuntza erabiltzera pasatzen baitira. Beraz, Donezteben adin muga hori zein den jakin nahi izan dugu eta gure bosgarren hipotesia, haur txikiekin gehiago erabiltzen dela izan da.

Hala ere, haur hizkeraren kontrako jarrerak eta iritziak daudela ikusi ditugu (§1.3.) Azken urte hauetan nahiko garatu dagoen gaia dela uste dugunez, guk ere galdera hori egin diogu gure buruari eta horrela den edo ez ikertu dugu, hori izango delarik gure seigarren hipotesia.

Beraz, hauek izango lirateke etxe-giroan planteatu ditugun hipotesiak:

1. Donezteben haur hizkera bizirik dago, herri euskalduna delako.
2. Etxean haur hizkera erabiltzen da.
3. Afektua adierazteko erabiltzen dute Haur Hizkera.
4. Aitaxi-amatxik gehiago erabiltzen dute gazteek baino.
5. Haur oso txikiekin gehiago erabiltzen da.
6. Guraso batzuek ez dute ongi ikusten haur hizkera erabiltzea.

Hezkuntzari dagokionez, hizkuntzaren jabeakuntza hasierako urte horietan nolakoa den ikusi dugu (§1.1.). Zubirik (1995), prozesu horretan haur hizkera erabiltzea lagungarria izan daitekeela aipatu digu (§1.3.) eta ikusi dugunez, lehenengo urte horietan haur batzuegan presente dago hizkera mota hori. Eskolara geroz eta lehenago joaten direla kontuan harturik eta eskolaren eginbeharrak zeintzuk diren ikusi ondotik (§1.6.2.), haur hizkerak hezkuntzan lekurik baduen ikusi nahi izan dugu. Kontuan hartuz, irakasleen artean jarrera negatiboak daudela, planteatu dugun lehenengo hipotesia eskolan haur hizkera ez dela erabiltzen izan da.

Gurasoen iritziak jaso ondotik eta 0-3 urte bitarteko haurrengan haur hizkera presente dagoela ikusi ondotik, haur eskolan haur hizkerak lekurik ba ote duen galdetu diogu geure buruari. Kontuan hartutik etapa honetan irakasleek duten jarrera eta prestakuntzaren artean, sentikortasuna dagoela (§1.6.2.) eta haur hizkera zenbait kasutan afektibozko lotura bat mantentzeko erabiltzen dela

(§1.3.) pentsa liteke etapa honetan lan egiten duten profesionalek ere erabiltzen dutela hizkera mota hau, bai hizkuntza berbala, baita hizkuntza ez-berbala ere (§1.4.2.1. eta §1.4.2.2.). Beraz, beraien egunerokotasunean haur hizkerak presentziarik ba ote duen ikusi nahi izan dugu, pentsatzen dutena edo benetan egiten dutena bat datozen edo ez ikusteko.

Bukatzeko, kontuan hartuta, Zubirik (2002) aipatu duen bezala (§1.3.) haur hizkera bi urtera arte erabiltzen den hizkera mota dela, nahiz eta bertze momentu puntualetan ere erabiltzen den eta gurasoen artean adin tarte horretan presente dagoen, haur hizkerak haur eskolan lekua duen edo ez ikusi nahi izan dugu.

Beraz, Hezkuntzari lotuta berriz, honako hipotesiak planteatu ditugu:

1. Eskolan haur hizkera ez da erabiltzen.
2. Hezkuntzan irakasleek adierazten duten jarrera eta gero ikusten dena edo egiten dutena batzuetan ez datoz bat.
3. 0-3 zikloan haur hizkerak lekua badu.

#### **2.4.. Metodologia eta materialak**

Hipotesi hauek egiaztatzeko edo ezeztatzeko hiru baliabide erabiliko ditugu; alde batetik, elkarrizketak eta bertzetik, behaketa eta grabazioak.

Alde batetik, Doneztebeko zenbait guraso eta aitatxi-amatxi elkarrizketak egin dizkiegu. Elkarrizketa guztiak, hauek hurrekin parkean zeudenean egin dizkiegu eta beraiekin egoera normalak sortzen saiatu gara beti ere eroso senti zitezten. Parte hartzaileen aukeraketa egiterako orduan irizpide batzuk jarraitu ditugu: adina, izaera (aita, ama, amatxi eta aitatxi) eta sexua. Hau, adina, izaera eta sexuaren artean, desberdintasunak ematen badira, zer nolako desberdintasunak ematen diren ikusteko helburuarekin. Galdera berdinak egin dizkiegu parte hartzaile guztiei (§E1) baina zerbait gehiago komentatu nahi baldin bazuten libreki aritzeko aukera izan dute.

Jarraian emaitzak aztertzerako orduan, parte hartzaileak identifikatzeko honako kodea erabili dugu: Adina, E (emakumezkoa) edo G (Gizonezkoa) eta G (Gurasoa). Guztira, adin desberdineko 7 guraso eta aitatxi-amatxi elkarrizketatu Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

---

ditugu, 4 emakumezko eta 3 gizonezko. Hurrenez hurren honakoak izan dira parte-hartzaileak:

- 32 urteko emakumea (32E-G)
- 40 urteko emakumea (40E-G)
- 45 urteko emakumea (45E-G)
- 65 urteko emakumea (65E-G)
- 36 urteko gizonezkoa (36G-G)
- 39 urteko gizonezkoa (39G-G)
- 45 Urteko gizonezkoa (45G-G)

Adin ezberdineko pertsonak aukeratu ditugu, modu honetan gurasoen adinak, haur hizkeraren erabileran eraginik duen edo ez ikusteko edo zer nolako desberdintasunak ematen diren ezagutzeko.

Bertze aldetik, Doneztebeko eskolako Haur Hezkuntzako irakasleei galderak egin dizkiegu beraien iritzien berri izateko. Galderak, eskolan beraien lan eremuan egin dizkiegu banan-banan. Zenbait galdera zehatz egin dizkiegun arren, beraiak nahi zutenaren iritzia emateko aukera izan dute, elkarrizketa irekia izan delarik.

Irakasleak identifikatzeko orduan honako kodea erabili dugu: I (Irakaslea) eta HH (Haur Hezkuntza). Guztira Haur Hezkuntzakoak eta Doneztebekoak diren 5 irakasle elkarrizketatu ditugu (I-HH-1, 2, 3, 4, 5), denak emakumezkoak, gure kasuan, Haur Hezkuntzan gizonezko irakaslerik ez baitago. Hauek izan dira beraz, gure parte-hartzaileak:

- I-HH-1
- I-HH-2
- I-HH-3
- I-HH-4
- I-HH-5

Elkarrizketa hauetaz gain, zenbait behaketa eta grabazio egin ditugu Doneztebeko Haur eskolan. Bi aldiz joan gara haur eskolara eta 0-2 urte bitarteko gelan haur hizkerak duen presentzia behatzen egon gara. Bi egunetan bazkalorduko momentua behatu eta grabatu dugu hezitzaileen eta haurren artean interakzio zuzena ematen den momentua baita. Behaketa eta grabaketa

---

egiterako orduan, pasibo egon gara, ez dugu egoerarik eragin, hori dela eta, naturaltasunez gertatzen dena behatu eta grabatu dugu (§E3).

Behaketa egiterako momentuan 0-2 urteko gelan 7 haur zeuden horietatik 4 neskak ziren eta 3 mutilak. Hauekin bi hezitzaile zeuden, horietako bat bazkalorduan laguntzera sartzen dena eta bestea gela horretako hezitzailea. Bazkalorduko momentua zenez, bi mahaietan banatuak zeuden, mahai batean 4 haur eta hezitzaile bat eta bertze mahaietan 3 haur eta hezitzailea. Aipatu behaketaren lehengo egunean hezitzaile bat zegoela eta bigarren egunean bertze hezitzaile desberdin bat, sukaldeko laguntzailea berriz berbera zen bi egunetan. Ondoren ateratako emaitzak bi behaketa momentu hauenak izango dira.

Aipatu, egindako grabazioetan gehienbat irakasle eta ikasleen arteko komunikazio berbala ageri dela, izan ere, ahotsa da grabatu duguna egoera normala izan zedin. Beraz, komunikazio ez berbalaren inguruko datuak gure behaketaren bidez jaso ditugu.

Modu honetan, hezitzaile eta haurren arteko elkarrizketez osatuta daude grabazioak, gehienbat irakasleek erabiltzen duten haur hizkeran, helduek haurrei hitz egiterakoan erabiltzen duten hizkeran jarri dugu arreta, erabiltzen den ikusteko eta gure proposamenari helduz, erabiltzea merezi ote duen hausnartzeko.

Irakasleak identifikatzeko erabiliko ditugun kodeak: H (Hezitzailea), zenbatgarrena (1, 2) edo sukaldeko laguntzailea (SL) eta Haur eskola (HE). Beraz hauek izango dira gure parte-hartzaileak:

- H-1-HE
- H-2-HE
- SL-HE

## **2.5. Emaitzak eta horien analisia**

### *2.5.1. Etxe-giroa*

Hasteko, etxe giroan planteatutako hipotesiak baieztatu edo ezeztatzeko elkarrizketetan (§E1) lortutako informazioa aztertuko dugu.

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

---

Hasteko, Donezteben euskarak dituen datuak erreparatuz (§2.1.1.) positiboak direla ikusi ditugu eta horrek haur hizkeraren erabilera eragina izan dezake, transmisioa egon daitekeelarik horren atzean. Bertzetik, ikusi dugun bezala haur hizkeraren inguruan egin diren lan gehienak haur hiztegiaren bildumak izan dira, Doneztebe eta bere inguruan ere hala gertatzen dela ikusi dugu (§2.1.2). Modu honetan, haur hizkerak lekua baduela ikus dezakegu, argitaratutako hiztegi bilduma hauen bidez, haur hizkera indartu nahi baita eta bere erabilera sustatzen jarraitu.

Donezteben, guraso eta aitatxi-amatxiei haur hizkera erabiltzen duten galdetu diegunean, gehienek baietz erran digute, 45G-G-k haurrek desberdin hitz egiten duela erran digu. 36 G-G-k, 40E-G-k eta 32E-G-k orain gutxiago erabiltzen dutela aipatu digute, haurrak handitu direlako, baina txikiagoak zirenean erabiltzen dutela erran digute. 65E-G-k batzuetan erabiltzen duela aipatu digu eta gelditzen zaizkigun azken bi partaideek, 45E-G-k eta 39G-G-k ez dutela erabiltzen erran digute. Hurrenez hurren, 45E-G-ren arabera, lehenagotik erran zioten hobe zela haurrek ongi hitz egitea, hitzak erraten diren bezala erratea eta horrela egiten omen du. 39G-G-k berriz, ez du erabiltzen baina bere emazteak bai. Beraz, zazpi parte hartzaileetatik bostek erabiltzen dutela ikusi dugu, hori dela eta haur hizkera Doneztebeko guraso eta aitatxi-amatxien artean bizirik dagoela erran dezakegu. Erantzunen artean, batzuek hizkera mota hau adin muga bateraino erabiltzen dutela ikusi dugu, aurrerago aztertuko dugu zein den adin muga hori. "Ttikiak zirenean erabiltzen genuen, orain helduei bezala hitz egiten diegu" esaldi hori anitz errepikatu da partaideen artean.

Gainera, haur hizkera mota honen erabilera erabiltzailearen esku dagoela ikusi dugu (§1.5) berak erabakiko baitu noiz erabili, horren adibide dugu 65E-G-ak, berak normalean ez duela erabiltzen aipatu digu baina zenbait momentutan erabiltzeko joera duela, goxoagoa den hizkera bat delako.

Beraz, ikusitakoarekin lehenengo eta bigarren hipotesiak baieztatu ditugu.

Hirugarren hipotesiari helduz, gure hipotesia haur hizkera afektua adierazteko erabiltzen zutela zen. Aurretik ikusi dugun moduan (§1.3.) Owens (2003) eta Fernald *et al.*-ek haur hizkerak hiru funtzio betetzen dituela ikusi dugu. Horiek

gure elkarrizketatuen artean ematen diren ikusi dugu. Haur hizkera erabiltzeko helburuen artean, iritzi ezberdinak jaso ditugu. 36E-G-n hitzetan: “fonetika erraxago ulertzeko erabiltzen dut, *fu-fu*, beroa adibidez, horrela ematen du erraxago ulertzen dutela”. 35E-G-k horrela ateratzen zaiolako erabiltzen duela erran digu, “hori da guri egin digutena, horrela entzun dut, amatxirengan batez ere, orduan pentsatu gabe ateratzen zait”. Hizkuntza bat ikasterako orduan, laguntza bat dela iruditzen zaio, bertzeak bertze, onomatopeiak erabiltzen direlako, aberasgarria dela iruditzen zaio, onuragarria. 39G-G-k, hasieran fonema guztiak ez dituztenez ongi erabiltzen, fonema horiek ongi erabiltzen eta hitza eta esanahia lotzen laguntzen diela erran digu. Beraz, Zubiri (1995) eta Brow-en (1977) iritziekin bat egiten dute gure partaideek, hizkuntzaren jabeakuntzan lagungarria izan daitekeela diotenean (§1.3.). 35E-G-ren eta 40E-G-ren iritziak, “haurra ttikia bezala ikusten dutelako erabiltzen dute”. 65E-G-k afektua adierazteko erabiltzen du, goxoagoa delako.

Beraz, iritzi guztiak ikusirik ez dagoela helburu bakar bat ikus dezakegu eta batzuek betidanik entzuna dutelako, haurarentzat errazagoa delako edo afektua bezalako arrazoiengatik erabiltzen dutela ikus dezakegu, beraz gure hipotesia eta Owens (2003) eta Fernald *et al.*-ek ere aipatzen dutena partaideen erantzunetan aurkitu ahal izan dugu.

Laugarren hipotesia, aitatxi-amatxik haur hizkera, gazteek baino gehiago erabiltzen dutela zen. Ikusi dugunez, elkarrizketatutako pertsona gehienek aipatu dute aitatxi edo amatxik hizkera mota hori erabiltzen dutela beraien seme-alabekin. 45G-E-n hitzetan, “hori da entzun duguna etxean, horrela egin digu guri, amatxik etxean”. Beraz, lehen haur hizkera erabiltzen zela ikus dezakegu eta orain ere, helduek lehen ikasitakoa edo entzundakoa beraien bilobekin erabiltzen jarraitzen dutela ikusi dugu. Zubirik (2002) hizkera mota hau alde batera uzten lehengoak gurasoak direla aipatzen du eta beranduen uzten dutenak berriz, aitatxi-amatxiak direla (§1.5.). Gure ikerketan hori ere ematen dela ikusi dugu. Guraso gehienek adin batetik aurrera erabiltzeari uzten diotela erran digute, eredu ona eman nahi baitiete beraien seme-alabei. Hala ere, gehienek aipatu digute aitatxi-amatxik oraindik erabiltzen jarraitzen dutela. 40E-G-k nahiago du haurrak haur hizkeran hitz bat erraten badu berak hizkera arruntean erraten den bezala erratea, bestela haurrak hitza gaizki ikasiko duela Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

dio. 45E-G-k eta 40E-G-k berriz, aitatxi-amatxik hizkera mota hori erabiltzen jarraitzen dutela erran digute.

Haur oso txikiengan haur hizkera gehiago erabiltzen dela zen gure bosgarren hipotesia. Hipotesi hau baieztatu dezakegu izan ere, partaide gehienek bat egiten dute eskolan hasi aurreko hizkuntza dela erratean. Haurrak eskolan hasten direneko garai horretan gutxi gora behera, haur hizkera erabiltzeari uzten diotela aipatu digute. 39G-G-ren erranetan: “gero beraiek hasten dira aldatzen eta guk ere aldatzen dugu”. 45G-G-ak berriz, ez du uste adin muga bat badenik, izan ere, 4 urteko semeak haur hizkeran ez hitz egiteko eskatzen baitio, *ttuttu* erran beharrean jarri errateko eskatzen dio. Orduan hori ikusirik, berak 3 urtetan jarriko lukeela adin muga erran digu. Zubiriren (2002) ekarpenekin bat egiten dute partaide gehienek, Zubirik ere (2002) 2 urte inguruan erabiltzeari uzten zaiola aipatzen baitu (§1.3.) nahiz eta salbuespenak egon, ikusi dugun bezala erabiltzailearen eskuetan baitago hizkera honen erabilera (§1.4.). Gure partaideen artean ere agertu dira salbuespenak, 39G-G-k bere emazteak 4 urteko semeari ere horrela hitz egiten diola aipatu baitigu.

Guraso batzuk haur hizkera erabiltzea ez dutela ongi ikusten gure hipotesien artean zegoen, izan ere, haur hizkeraren inguruan jarrera negatiboak daudela ikusi ditugu (§1.3.). Nahiko garatua dagoen jarrera bat denez, Donezteben ere halako jarrerak ote dauden ikusi nahi izan dugu. Elkarrizketak egin ondoren guraso batzuen iritziz horrela dela ikusi dugu. Hala nola, 45E-G-aren hitzetan: “Lehenagotik erran zidaten hurrekin hobe dela saiatzea ongi hitz egiten, hitzak erraten diren moduan erraten eta nik uste dut horrela egiten dugula”. 36G-G-k berriz honakoa dio: “Niri ñiñi-ñoño solastea ez zait gustatzen”. Haur hizkera, hurrei ñoño bezala, tuntunak izango balira bezala, hitz egitearekin lotzen du. 65E-G-k aipatu digu, normalean horrela ez egitea saiatzen dela baina batzuetan nahigabe ateratzen zaiola. Honekin atera dezakegun ondorioa, haur hizkerarekiko iritzi negatiboa duela da, honi erabilpena ez duela defendatzen alegia.

Bukatzeko, zenbait autorek Lizarraga (2010) eta Aranguren *et al.*-ek (2014) adibidez, hurrekin erabiltzen diren hitz zerrendak argitaratu dituzte. Guk Donezteben zer nolako hitzak erabiltzen diren jakin nahi izan dugu. Gure parte hartzaileek honako hitzak erabiltzen dituztela aipatu dizkigute: bukatu > ako;

---

beroa > *fu*; eseri > *ttuttu*; jan > *ñañam*; jarri > *apatx egin*; jarri > *ttuttu*; goitu > *aupi*; zaldia > *putxitxu*.

Haur txikiekin erabiltzen ditugun hitz berezietan osatutako bildumak Malerrekan argitaratu dituztela ikusi ditugu (§2.2.). Gurasoek hauen berri ba ote duten jakin nahi izan dugu. Jaso ditugun erantzunetan, bik bakarrik ezagutzen dituzte, hain zuzen ere, Hizkerari buruz argitaratutako lanak Malerrekan badaudela ikusi dugu (§2.2.) eta gurasoek lan horiek ezagutzen ote dituzten jakin nahi izan dugu. Horri buruz galdetu diegunean, gehienek horren berri izan dute, izan ere, guraso hauen kasuan, Malerrekako Mankomunitateak haur jaioberriei etxera liburuxka hauek bidaltzen dizkiete.

Beraz, laburbilduz, etxe inguruan erabiltzen den haur hizkeraz honakoa erran dezakegu:

- Donezteben haur hizkera nahiko bizirik dago, bai biztanleen artean eta baita argitaratutako materialen artean eta etxean erabiltzen da.
- Haur hizkera erabiltzeko helburuen artean, afektua dago, nahiz eta ez den helburu bakarra. Bertze helburu hauek ere agertu baitira: hizkuntza ikasteko errazagoa delako, haurrak txikiak direla ikusten dutelako (batez ere aitatxi-amatxik) eta gurasoei betidanik horrela egin dietelako eta ikasi dutelako.
- Haur txikiekin gehiago erabiltzen da, 2 urtera arte gutxi gora behera nahi eta salbuespenak egon.
- Guraso batzuek ez dute ongi ikusten haur hizkera erabiltzea, eredu txarra ematearekin lotzen dute.

### 2.5.2. Hezkuntza mundua

Hezkuntzari dagokionez, eskola esparruari hain zuzen, aurretik planteatutako hipotesiak baieztatu edo ezeztatzeko, irakasleei egindako elkarrizketak (§E2) eta haur eskolan egindako behaketak eta grabazioak (§E3) aztertuko ditugu.

Gure lehendabiziko hipotesia, eskolan haur hizkera ez dela erabiltzen zen, izan ere, gurasoen iritzien arabera, eskolan hasi aurreko urteetan erabiltzen da haur hizkera. Hala ere irakasleen iritzia jaso ditugu hori horrela den edo ez ikusteko. Irakasleen iritzia ikusirik, irakasleen artean, haur hizkera erabiltzearen Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua



---

kontrako jarrera dagoela ikusi dugu. “Haur hizkera ez dugu erabiltzen, eredu ona ematen saiatzen gara”. Iritziz hau irakasle guztiek konpartitzen dute. I-HH-5-ren iritziz, “eredu txarra ematen ari gara horrela. Haur hizkeraz hitz egiten badiegu oso hizkuntza sinplearekin gelditzen dira, “txikiak” gelditzen dira, ez dira garatzen”. I-HH-2-k dio, izaera aldetik ez diola haurrari garatzen uzten, txikitasuna transmititzen duela. Helburu didaktikoarekin lotzen dute beraien lana, erakustearekin, haur hizkera eredu txarrarekin lotzen dute.

Ez erabiltzearen arrazoiak galdetuta, arrazoa zein den ez dakiela aipatu digu I-HH-4-k. Berari helduei egiten diegun moduan egitea ateratzen zaiola aipatu digu. Irakasleen artean horren inguruan ez dutela hitz egin erran digu eta gainera gainontzeko irakasleek haur hizkera erabiltzen ez dutela pentsatzen du. Beraz, ikus dezakegu haur hizkera ez duela eskolan erabiltzen den hizkerarekin lotzen.

Bigarren hipotesiari helduz, irakasleek pentsatzen dutena eta egiten dutena bat datozen edo ez ikusi nahi izan dugu. Hori dela eta eskolako irakasleei zein haur eskolako profesionali galderak egiteaz gain, bi eremuak behatzeko aukera izan dugu. Irakasleei haur hizkeraz galdetu diegunean, gehienak edo ia denek haur hizkuntzarekiko jarrera negatiboa adierazi digute, eredu txarrarekin lotuz. Beraiek erabiltzen ez dutela adierazi digute eta eskolan behintzat erabili behar ez den hizkera bat dela erratean bat egiten dute gehienek. Beraien ustez, eredu on bat eman behar diegu haurrei eta gauzak helduei bezala erraten dizkietela erran digute. I-HH-1-ak haurrak txitxi erraten badu, berak haragia zuzentzen diola erran digu. I-HH-4-ak horrela erraten ez dela ez die erraten, baina zuzenean helduek erraten duten moduan erraten die. Ikusi dugunez, haur hizkera haur txikiekin erabiltzen dugun hiztegi berezi horretara mugatzen dute zenbait autorek Lizarragak (2010) eta , Aurkerenak (1999) bezalaxe.

Orain arte gehienbat azterketa soziolinguistikoa egin dugu eta hemendik aurrera hizkera honek Doneztebe dituen ezaugarriak aztertuko ditugu, horretarako eskolan eta haur eskolan egindako behaketa eta grabazioetan oinarrituko garelarik (§E1 eta §E2).

Irakasleen iritzia jasotzeaz gain, behaketa egitea interesgarria iruditu zaigu. Alde batetik, eskolan 3-6 urteko gelan behatzeko aukera izan dugu. Erran

dezakegu bertan irakasleen artean haur hizkeraren inguruko hiztegi berezi hori erabiltzen ez den arren, bertze zenbait ezaugarri agertzen direla, aurretik aipatutako haur hizkeraren ezaugarri orokorrekin (§1.4.2.) bat egiten dutenak. Haur Hezkuntzako irakasleek, nahiz eta egunerokotasunean erabili, ez dute haur hizkera bertze zenbait ezaugarriekin lotzen, hala nola, tonuaren aldaketarekin, errepikapenekin, keinuekin eta galderazko esaldiekin

3-6 urte bitartean haur hizkera anitz erabiltzen ez dela ikusirik haur eskolara jo dugu bertako egoera ezagutzeko.

Haur eskolako irakasleek, eskolako irakasleen iritziekin bat egiten dute, hau da, haur hizkera ez dute erabiltzen eredu ona eman nahi dutelako eta irakasle guztiak horrekin ados agertzen dira. Beraientzat haur hizkera hiztegi txikia da eta beraiek eskolan ez dute hori lantzen.

Haur eskolara joateko arrazoia gehienbat adinaren arabera izan da, gure hipotesien artean, haurra zenbat eta txikiagoa izan gehiago erabiltzen dela zegoen eta hori eskolan ere ematen den behatu nahi izan dugu.

Irakasleen iritziak ezagututa eta behatu dugunaren arabera, hasieran geneukan hipotesia baieztatu dezakegu, hau da, nahiz eta irakasleek haur hizkeraren inguruko jarrera negatiboa adierazten duten, erabiltzen dutela ikusi dugu.

Aztertu dugun momentua bazkalordua izan da eta irakasleek haurrei nola hitz egiten dieten behatu dugu. Modu honetan Zubirik (2002) zerrendatutako euskal haur hizkeraren ezaugarriak kontuan harturik honakoa ikusi dugu:

Hasteko, Zubirik aipatu duen moduan (§1.5.), fonetikoki kontsonanteak sabaikatu edo busti egiten dituztela ikusi dugu: SL-HE-k “Ze Ane, baduzu goxia? Goxiakin?”; “xe ona e”; “exkautu da bai?”; Ikus dezakegun moduan, hasierako esaldian, “baduzu” ez du sabaikatzen. Modu honetan, Zubirik (2002: 28) dioen bezala, haur hizkeraren ezaugarrien agerpena ez da erregularra eta sistematikoa. H1-HE-k “nahi duzu pixkot puxkatzea?”; “ ze puxka handia ez?” “idortu exkuak ongi ongi e?”. H2-HE-k “ikuxi duzu postria?”; “kaxo Izaro e?”; “Ze extula”. Kasu hauetan, gehienbat s>x bihurtzeko joera dagoela ikus dezakegu baita z> x.

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

Hiztegiari dagokionez, izaera onomatopeikoa duen hitz bakarria aurkitu dugu “brun-brun”.

Hezitzaileak hurrei zuzentzean afektua adierazten duten hitzak ugariak direla antzeman dugu. H1-HE-k “bukatu duzu moñoña?”; “mauka igoko duzu maitia” bezalako esaldiak erraten dizkie hurrei.

Haur txikiekin erabiltzen den hiztegi berezia ere hezitzaileek erabiltzen dutela ikusi dugu,: SL-HE-k “fu fu egin beharko dugu”; “ttutu”; “pumba miña hartu duzu?”; “Ako?”; H2-HH-k “lagunduko dizut koltxonetetara, aupi”.

Errepikapenak eta galderazko esaldiak asko erabiltzen dituztela ikusi dugu, haurraren erantzuna jasotzeko helburuarekin. H1-HE-k “ekarrik, ekarri zapatila”; Marko torri bai?, torri”; SL-HE-k “ona, ona bai? Ze ona e?”. Honekin batera, doinuaren aldaketa ikus daiteke galderazko esaldi hauetan, enfatikoagoak dira.

*Beraz*, ikusi ahal izan dugu hizkuntza arrunta eta haur hizketa tartekatzen dutela, egoeraren arabera aldatzen dutela erran dezakegu, normalean, goxotasuna edo afektua adierazi nahi dutenean erabiltzen baitute. Bukatzeko, erran dezakegu gure azken hipotesia baieztatu genezakeela, haur hizkerak 0-3 zikloan lekua duela aipatzerako orduan.

Euskalkiri dagokionez, eskolak izan behar duen esku-hartzean (§1.6.2.) ikusi dugu haurraren inguruan euskalkirik badago, euskalki hori eskolan lantzea interesgarria izango litzatekeela. Aipatu, Doneztebeko eskolan, Haur Hezkuntzako irakasleak Doneztebekoak direnez, egunerokotasunean euskalkia erabiltzen dutela, ahozkotasunean, haurrek ere beraien artean euskalkia erabiltzen duten bezala.

Haur hizkera erabiltzen den bi eremuak, etxe giroa eta Hezkuntza, alderatzen baditugu, jasotako zenbait datuek bat egiten dute. Hain zuzen ere, etxean haur hizkera erabiltzearen adin muga bat dagoela ikusi dugu, eskolan hasi arteko izango litzatekeena, hain zuzen ere, 2-3 urtetan jarri dute adin-muga guraso gehienek. Egia da, hori ez dela beti horrela izan bakoitzak erabakitzen baitu noiz arte erabili.

Adin muga hori kontuan hartzen badugu, Hezkuntzan haur hizkera erabiltzen den edo ez behatu ondoren, erran dezakegu, Haur Hezkuntzako bigarren ziklo

---

horretan haur hizkerak presentzia handirik ez badu ere, haurren artean ez duen bezala, haur eskolan 0-3 urte bitartean haur hizkerak presentzia duela. Modu honetan, 3 urte bitarteko haurrekin erabiltzen dela kontuan hartuz eta haur eskolan haur hizkerak presentzia gehiago duela ikusirik, etapa horretan haur hizkerak bere lekua izan beharko lukeela uste dugu.

Hala ere, irakasleak hartu beharko luke erabiltzearen edo ez erabiltzearen inguruko erabakia. Etxe giroan gurasoen artean haur hizkerari buruzko jarrera negatibo anitz aurkitu ez ditugun arren, irakasleen artean jarrera negatiboa nagusi dela ikusi dugu. Hala ere, I-HH-2-k honakoa aipatu digu: “momentu puntualetan erabiltzeko dela uste dut, agian, etxean, amatxi-aitatzik maitasuna adierazteko erabiltzen dute”. Beraz, haur hizkera etxe giroarekin lotzen duela ikus dezakegu.

Horretaz gain, gure ikerketako ia partaide gehienek haur hizkera, haur txikiekin erabiltzen den hiztegi horrekin lotzen dutela soilik eta ez haur hizkerak dituen beste ezaugarriekin, doinu aldaketekin, errepikapenekin, edo onomatopeien erabilpenekin.

Hezkuntzan, haur eskolaren kasuan haur hizkeraren hainbat ezaugarri topatu ditugu, beraz haur eskolako profesionalek erabiltzen dutela ikusi dugu nahiz eta haur hizkera erabiltzen ez dutela erran. Horren atzean, informazio falta ikusi dugu gehienbat ez baitakite haur hizkera erraten dugunean zehazki zeri egiten diogun erreferentzia. Gainera, beraien helburua eredu ona ematea dela erran digute behin baino gehiagotan. Hori dela eta, eredu txarrarekin lotzen dute haur hizkera. Hau ikusirik irakasleen aldetik, formazioa beharrezkoa dela pentsatzen dugu eta haur hizkeraren inguruan hausnartzea eta izan dezakeen ondorio positiboak behatzea interesgarritzat jotzen dugu.

Horrekin batera, hizkuntzaren jabekuntzan ondorio positiboak izan ditzakeela ikusi dugu eta adin batera iristean haur hizkera erabiltzeari utzi eta helduon hizkera arazorik gabe erabiltzen hasten direla. Hori ikusirik, eredu txarra ematen ari garenaren ideia hori alde batera utzi beharrean gaude eta hezkuntzan lan egiten duten profesionalek horren berri izatea interesgarria iruditzen zaigu.

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

---

## CONCLUSIONES Y CUESTIONES ABIERTAS

Después de consultar ciertas referencias acerca del lenguaje maternal y de recopilar cierta información, que hemos aplicado en un contexto real, concretamente en el pueblo de Santesteban, ha llegado el momento de sacar unas conclusiones y de reflexionar sobre el papel que tiene o que debe tener el lenguaje maternal en la Educación.

Como hemos visto durante este teórico y práctico trabajo, las personas adaptamos nuestro lenguaje según con quién nos comunicamos, ya que no le hablamos igual a un niño de 2 años o a uno de 15 años. Tampoco es el mismo el lenguaje el que utilizamos en casa o en la fábrica, ni el lenguaje que utilizamos con los padres o con un amigo del pueblo (Etxeberria, 2003: 28).

El lenguaje maternal mayormente se ha utilizado en el entorno de la familia o con las personas más cercanas. Entre las referencias que hemos consultado, en el libro *Malerreka Solasean* (2005), hemos podido ver la presencia que tenía en aquellos tiempos el lenguaje maternal en el ámbito familiar.

Hoy en día, debido a que los padres trabajan fuera del hogar más horas, los niños son escolarizados antes. Si observamos los datos de escolarización de los niños en la etapa de Educación Infantil, podemos ver que han aumentado en estos últimos años. Según el Departamento de Educación de Navarra, en los datos que publicó en el año 2011 en el Sistema de Indicadores de la Educación de Navarra, en la evolución por niveles educativos, se observa un aumento del porcentaje de escolarización en Educación Infantil. Concretamente, en este nivel, Navarra ha crecido 4,5 por ciento.

Teniendo en cuenta que son muchos los niños que acuden a la escuela infantil o a la escuela, queremos plantear la siguiente pregunta que hemos venido analizando a lo largo de este trabajo: ¿El lenguaje maternal no debería de tener su lugar en la Educación? Tal y como hemos mencionado en el desarrollo de este trabajo, hemos visto que la utilización del lenguaje maternal favorece la adquisición del lenguaje, ya que utilizamos onomatopeyas, repeticiones, etc.

---

A pesar de que hay opiniones o comportamientos negativos acerca de este tema, como hemos podido encontrar en las opiniones de nuestros participantes, podemos decir que en Santesteban el lenguaje maternal está bastante vivo ya que los padres y abuelos lo utilizan. Cierta gente, entre ellos los profesionales que trabajan en la etapa de Educación Infantil, relacionan el lenguaje maternal con un modelo inadecuado. Pero, ¿Los hijos, nietos, sobrinos... de las personas que han utilizado o utilizan el lenguaje maternal, han tenido alguna dificultad a la hora de adquirir el lenguaje? Nos atreveríamos a decir que no. En el libro, *Xaldun Kortin. Jolastu gurekin!* (2014), hacen la siguiente mención:

Tradicionalmente hemos utilizado este lenguaje, de manera que aunque al principio dijéramos pupa, luego aprendimos a decir herida sin ningún obstáculo. Sin duda, es una forma especial de hablar que crea un vínculo afectivo con el idioma (Aranguren, Arburua *et al*, 2014: 74).

Teniendo en cuenta los resultados que hemos obtenido en nuestra investigación, hemos podido ver que el lenguaje maternal se utiliza en los primeros años de edad de un niño, normalmente hasta los 2-3 años, aunque hay excepciones. Por esa razón, muchos de los niños de esta edad tienen presente el lenguaje verbal. Entonces, ¿Qué ocurre con este lenguaje en el ámbito de la Educación?

En nuestra investigación hemos analizado este ámbito de cerca. En la segunda etapa de Educación infantil, en la etapa de 3-6 años, no hemos visto necesidad de utilizarlo, ya que no está tan presente entre los alumnos. La mayoría de los padres coinciden al afirmar que, una vez de que su hija o hijo acude a la escuela, utilizan menos el lenguaje maternal.

Sin embargo, en las conversaciones que hemos mantenido con los padres y abuelos y con las grabaciones que hemos llevado a cabo en la escuela infantil, vemos la necesidad de hacerle un hueco al lenguaje maternal, ya que en esta etapa muchos niños tienen presente este lenguaje.

La utilización del lenguaje maternal nos da la oportunidad de mantener una relación más afectiva y cariñosa con los niños. En Educación infantil estos conceptos son muy importantes y se trabajan mucho, por eso el lenguaje

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

---

infantil nos podría ayudar a mejorar estas relaciones entre adulto-niño. Teniendo en cuenta que todos los niños no tendrán presente este lenguaje maternal pensamos que no deberíamos de dejar a un lado la utilización del lenguaje común.

En nuestra investigación hemos visto que el lenguaje maternal no está presente entre los profesionales que trabajan en el ámbito de la Educación.

Pero, ¿Los profesores tienen conocimientos sobre este lenguaje? En nuestra investigación hemos podido ver que la mayoría muestra un comportamiento negativo acerca de este lenguaje o que no tienen muchos conocimientos sobre el tema, ya que relacionan el lenguaje maternal sólo con el diccionario especial de los niños. Por esa razón, vemos necesario la formación del profesorado ya que podría ser beneficiario para los alumnos y para los padres que utilizan este lenguaje. De esta forma no estaríamos separando los dos ámbitos más importantes del niño, el familiar y el escolar y la comunicación entre el adulto-niño sería más cercana.

Nuestra investigación nos ha llevado a confirmar o desechar ciertas hipótesis que habíamos planteado teniendo en cuenta toda la información recopilada anteriormente. Podemos decir que las expectativas que teníamos se han cumplido y que la mayoría de las hipótesis que habíamos planteado antes de comenzar con nuestra investigación se han confirmado, aunque hemos obtenido datos que no estaban en nuestras expectativas.

Con este trabajo hemos conocido más los aspectos acerca del lenguaje maternal y en especial hemos conocido de muy cerca la situación que tiene el lenguaje maternal en el ámbito familiar y en el ámbito de la Educación en Santesteban.

Para terminar, como futuros docentes que seremos, pienso que es un tema interesante de tratar en las escuelas infantiles y que nos lleva a reflexionar, ya que en muchas escuelas no se le da importancia a este lenguaje o no es tan conocida.

---

## ERREFERENTZIAK

Anduaga, E. (2012). Euskara zerbitzua 2013ko plangintza. Malerrekako mankomunitatea. [Kontsulta: 2014-03-03].

Ansorena, J. (2002). Haur hizkera. *Bat*. 42.

Apaulaza, A. eta Lakar, M. (2005). *Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*. Iruñea: Nafarroako Gobernu eta Malerrekako Mankomunitatea, 55-68 or.

Aranguren, G; Arburua, P; Lakar, M; Luri, I. (2014). *Xaldun kortin. Jolastu gurekin!*. Antza.

Aurkerena, J.; Covadonga, G.; Zelaia, J. (1999). *Haur hizkera*. Bilbao: Gero.

Baraibar, H; Boan, K. Ikastolen elkarte. (2006). Hizkuntzaren transmisioan familia da gakoa. Bestelakoa.

Barreña, A. (1993). *Haur euskaldunen hizkuntzaren jabeakuntza garapena: INFL eta KONP funtzio kategorien erabileraz*. UPV-EHU.

Boyles, S. (2005). Baby Talk May Help Infants Learn Faster. Babies Learn More Quickly, Study Suggests. *WebMD Health News*.

Elizagoien, J. (2013). Haur hizkera etxetik eskolara: ezaugarriak, erabilera eta baztango kasua. Upnako lan argitaratu gabea.

Etxeberria, f. (2003). *Hizkuntzaren Psikopedagogia*. Donostia. Elhuyar.

Etxegoien, J.C. Xamar (2001). *Herri eta hizkuntzen ekologiak*. Iruñea: Pamiela.

Fishman, J (1993). *Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan*. Donostia.

Gilsanz, K. (2012). Guraso eta seme-alaben arteko hitzik gabeko harremanak. Psikologia.

Kasares, P [ s.d.]. Haur literaturaren didaktika. Haur Hezkuntzako Irakaskuntza gradua. Upna.

Larrea, I. (2007). *0-3 urteko haurren garapena eta eskola*. Mondragon unibertsitatea.

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua



---

Lizarraga, J.I. (2010). *Haurren munduko hiztegi txikia*. Lizarra: Nafarroako Gobernua.

Maia.J; Larrea.K (2008). *Euskara batua eta euskalkiak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan*.

Nafarroako Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko IKA euskaltegiak, (1994) *Etiket Plazara* .

Nafarroako hainbat toki entitate (2013). *Familia eta euskara. Duzun onena*.

Nafarroako hainbat toki entitate (2013). *Familia eta euskara. Jolastuko gara*.

Nafarroako hainbat toki entitate (2013). *Familia eta euskara. Bakoitzari berea*.

Nafarroako Hezkuntza Departamentua, (2007) Haur Hezkuntzako curriculum.

Nafarroako Hezkuntza Departamentua, (2011 ) "Sistema de Indicadores de la educación de navarra". Servicio de Inspección Técnica y de Servicios. Área de Evaluación del sistema. Gobierno de Navarra. Baita online ere:

<http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/indicadores2011.pdf>

[Kontsulta: 2014-04-20].

Ochs, E.; Schieffelin, B. (1984) Language acquisition and socialization. Three developmental stories and their implications. In Shweder, R. A. and LeVine, R. A. (arg.), *Culture Theory. Essays on Mind, Self and Emotion* (276.-320. or.). United States of America: Cambridge University Press.

Ochs, E ; Schieffelin, B. (1986). Language socialization. *Annual Review of Anthropology*, 15. 172-176.

Pérez. J. A. [s.d.]. Psicología del desarrollo en la edad infantil. Desarrollo del lenguaje y la comunicación. Universitat de les Illes Balears.

San Vicente, A. (2014). Haur hizkeraren transmisioa: eskolaren eginbearra eta Azpeitiko kasua. Upnako lan argitaratugabea.

Zubiri, J.J. (1995). Euskarazko haur hizkuntzaren berezitasunak. *Huarte de San Juan. Hizkuntzaren Filologia eta didaktika*. 177-203, 1.

Zubiri, J.J. (2002). *Haur hizkeraren erabileraz*. *Hizpide*, 16-30, 4.

---

## **ERANSKINAK**

### **E1. Gurasoei egindako elkarrizketak**

#### **Erabiltzen duzu haur hizkera zure seme-alabekin?**

45E-G: “Uste dut ezetz, lenagotik erran zidaten haurrak hobe dela saiatzia ongi solasten, hitzak erraten diren modun erraten ta nik uste dut hola itten dugula. Amatik iual hitzaren bat edo hola bai biño gutti, ia lau urtera duazi ta iual ttikiguk zirelik gehio biño uain ia gutti”.

36G-G: “Nik ez. Bueno aber ttiki ttikiak zirenik bai biño gero ia ez. orain ia hitz egiten dugu helduei bezela”.

65E-G: “Haur hizkera erraten duzulik nahi duzu erran hitz egiteko modu berexi bat hurrekin. Ez normalin saiatzen naiz ez egitera biño batzutan bai, goxoagoa da ta nahigabe atetzen dire holako kostumbre batzuk edo biño normalin saiatzen naiz ezetz ez aldatzera”.

45G-G: “Bai bai, hurrekin desberdin itten dut haundiekin biño”.

40E-G: “Haur hizkerak, ze nahi du erran haur hizkerak? Haur ttikiei bezala? 10 urtekoari helduei bezala eta ttikiari orain ere bai. Amatik ttikiari bai solasten die hola. Nik nahiago dut erraten badu hitz bat nik erratia ongi erraten badiozu gaizki, gaizki ikasiko du ez da ikasten den bezela. Zuzendu bai egiten diot ez diot erraten gaizki dago biño berak erraten du ta nik errepikatzen diot ongi”.

32E-G: “Haur hizkera zer da? Bai biño gero ta guttigo. Haunditzen ai dire ta aldatzen dugu. Uain ia juaten gara aldatzen adibidez, lehen apatx egin eta orain jarri. Ez dut uste gero hizkuntzaren jabekuntzan eraginik dunik”.

39G-G: “Nik ez, emazteak bai”.

#### **Erabiltzearen edo ez erabiltzearen helburua edo arrazoia?**

40E-G: “Erraten ziguten beraiek ongi ikasteko solasin ta hastekin eskolara ere bai, ze itxin akostunbratzen badiozu hitza batzuk erraten hola ta etortzen dire eskolara ta eztakite ongi erraten hitza hoiek ba... Horregatik saiatu giñen erraten hola gauzak. Ni batez ere, igual amatik ta atautxik segitzen dute ttikiak direlik ta hola erraten”.

36G-G: “eztakit... azkenin fonetika beraiek ulertzeko erraxago, fu-fu... beroa ez? horrela ematen du errexago ulertzen dutela”.

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

---

45G-G: “Hola ateratzen zaigu, hori da egin digutena guri, hola aittu dugu itxin , amatxik ta hola, ordun pentsatu gabe atetzen zaizu. Hizkuntza bat ikasterako ordun neri laguntza bat iruditzen zait, ibiltzen ttuzu onomatopeiak ta hizkera normalin erabiltzen ez ttuzunak. Iruditzen zait beti aberasgarria, ona dela errango nuke”.

40E-G: “Ikusten dute ttikia dela”.

32E-G: “Beti hola ikasi dut haurrari haurren hitzekin ta gero juaten gara polliki-polliki erakusten”.

39G-G: “Hasieran ez dituzte fonema guztiak ongi bereizten eta horrek laguntzen dio fonema hoiek ongi erabiltzen eta hitza eta esanahia lotzen. Gero 2 urtekin ia hasten al da helduen hizkuntza erabiltzen”.

### **Hitzak:**

40E-G: “Ez naiz oroitzen”.

36G-G: “Bukatu-ako; bero-fu”.

45G-G: “Ttu-ttu, ñañoam”.

32E-G: “Jarri-apatx egin”.

35E-G: “Ttuttu-txitxi; aupis; putxitxu”.

### **Ezagutzen al duzue haur hizkerari buruzko materialik?**

45E-G: “Bai”.

36G-G: “Ez”.

45G-G: “Bai”.

65E-G: “Ez”.

40E-G: “Bai”.

32E-G: “Bai”.

39G-G: “Bai”.

### **Eskolan erabili behar dela uste duzu?**

36G-G: “Eskolan segun ze adinera eramaten ditzuzun. Nik eskolara eramane dittut 2 urtekin eta neskak ia solasten zuen normal, etzuen ia hizkera hori erabiltzen , dena den oso goiz hasi zen hitz egiten”.

45G-G: “Eztaikit duda dut, ze 3 urtetan hasten bazait eskatzen ez solasteko. igual haur eskoletan errango nizuke baietz. Eskolan normala, ze badaude euskara inoiz aittu ez dutenak, ordun hasten bazara hoiekin, iruditzen zait eskolan normala”.

---

40E-G: “Ez, eskolan ez, gehiago etxeko kontua da”.

32E-G: “Bai, denin”.

### **Ze adineko hurrekin erabiltzen duzu?**

36G-G: “2 urterako ia ongi hitz egiten zuenez, eztu batzutan beharrik horrela solasteko. Gañera iruditzen zait batzutan ñiñi-ñoño...solastia eztaiz gustatzen, hitz batzuk eta horrela ttikitan erabiltzen direnak pues bai azkenin erabiltzen ttuzu biño bertzela...orain ez dut erabiltzen 3 eta 5 urte ttuzte orain.

45G-G: 20 hilabete eta 4 urteko hurrekin. Eztut uste adin muga bat badenik biño 4 urtekoak ia eskatzen du neri ez erran ttuttu neri erran jarri, ordun horrerri guttigo edo ia normal. Ze adinetan aldatu? Igual 3 urtetan”.

32E-G: “Orain 3 urte dittu ta erabiltzen dut, pentsatzen dut beti eginen diotela”.

39G-G: “2,3,4... gero ia hasten dire aldatzen ta gu hasten gara aldatzen”.

## **E2. Irakasleei egindako elkarrizketak.**

Erabiltzen ahal duzue haur hizkera eskolan?

Erabiltzearen edo ez erabiltzearen helburua?

Ze iritzi duzue etxean haur hizkera erabiltzearena?

Hizkuntzaren jabeakuntzan eragina duela uste ahal duzu?

Irakaslea 1: I-HH-1

“Haur hizkera eskolan ez dugu erabiltzen, eredu ona ematen saiatzen gara. Haur batek txitxi erraten badu, haragia zuzentzen diot, bertzela beti txitxi erraten segituko du. Hurrek bakarrik aldatzen dute helduen hizkuntzara, ailegatzan da momentu bat haur hizkera alde batera uzten dutena eta helduen hizkuntzaz hitz egiten dutena. Etxean horrela solasten diete uste dutelako haurrak ez direla gai gauzak ikasteko “ñoño” bezala solasten dute. Etxean horrela solasten dieten haurrak, gero bertze hurrekin horrela solasten dute. Adibidez, xer nahi duxu? Errango dio bertze haurrari, zer nahi duzu? erran beharrean”.

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

---

Irakaslea 2: I-HH-2:

“Haur hizkera ez dugu erabiltzen. Nire ustez, izaera aldetik ez dio uzten haurrari garatzen, txikitasuna transmititzen du. Beti txikiak bezala sentitzen dira eta gero hori aldatzea kostatzen da, izaera hori garatu duelako”.

Irakaslea 3: I-HH-3

“Nik ez dut erabiltzen, momentu puntualetan erabiltzeko dela uste, agian, etxean, amatxi-atautxik erabiliko dute, maitasuna, hurbiltasuna, adierazteko erabiltzen dela uste dut. Hala ere, nik nahiago dut hasieratik eredu ona eman eta helduen hizkeran hitz egiten diet”.

Irakaslea 4: I-HH-4

“Ez, nik ez dut erabiltzen, beti ongi solasten diet. Arrazoia ez dakit zein den, beti hola egin dut, eredu ona ematen saiatzen naiz beti, horrela ateratzen zaigu. Gainera ez dut uste gainontzeko irakasleek erabiltzen dutenik, denek helduen hizkera erabiltzen dugula uste dut. Batzutan etxetik etortzen dira “txitxi” bezalako hitzak erraten, biño poliki-poliki bertze hitzak ikasten dituzte. Ez diet erraten honela ez da erraten baina bertze moduan erraten diet”:

Irakaslea 5: I-HH-5

“Zeri deitzen diozu haur hizkera? (ez daki) Erabiltzen dugun? Ez dugu erabiltzen (oso argi erantzuten du). Eredu txarra ematen ari gara horrela. Guk beti eredu ona ematen diegu, etxean igual bai solasten diete horrela, baina gurasoak ikasten ari direlako da hori. Haur hizkeraz hitz egiten badiegu oso hizkuntza sinplearekin gelditzen dira, “txikiak” gelditzen dira ez dira garatzen. Batzuk etxetik 3 urtetan haur hizkera ekartzen dute eta nabari dira horien arteko desberdintasunak, ez badiegu aldatzen ez dira garatzen”.

### **E3. Haur eskolan egindako behaketa eta grabazioak.**

Hezitzaileek haurrei zuzentzean erabiltzen zuten hizkera datozen lerroetan bildu dut:

- “Aimartxo kenduko duzu txamarra?”(txo atzikia erabiltzen du afektua edo haurrerekiko hurbiltasuna adierazteko)

- 
- “Bukatu baduzu bota zakarrontzira bale? Eskerrikasko.”(doinu aldaketa, goxotasuna)
  - “Ekarri, ekarri zapatila.” (errepikapenak)
  - “Izaro, Izarori tokatzen zaio.” (errepikapenak)
  - “Pottoka, hasiko gara prestatzen bazkaltzera joateko?”(goxotasuna) adierazteko pottoka erabiltzen du)
  - “Marko torri bai? Torri” (errepikapenak)
  - “Attatto dago belarra mozten e? brun, brun, brun...” (galderazko esaldia, haurraren erantzuna jasotzeko egiten du, onomatopeiak makinaren soinua adierazteko erabiltzen ditu)
  - “Ze Ane, baduzu goxia? Goxiak?”( sabaikadura s>x eta galderazko esaldi, haurraren erantzuna jaso nahian)
  - “Goxua dago? Bai? Umm...xe ona e?”(doinuaren aldaketa, sabaikadura z>x eta galderazko esaldiak)
  - “Ona, ona bai? Ze ona e?” (errepikapenak, galderazko esaldiak)
  - “Bukatu duzu moñoña?” ( afektua adierazteko moñoña erabiltzen du, hurbiltasuna transmititzen du)
  - “Jateko jartzen gara bai? Ttuttu.” (haur hizkeran erabiltzen den hitza erabiltzen du jarri erran beharrean, ttuttu erraten dio)
  - “Exkautu da bai?”(sabaikadura, s>x)
  - “Nahi duzu pixkot puxkatzea?”( sabaikadura. S>x)
  - “Ze puxka haundia ez?” (galderazko esaldia eta doinu aldaketa)
  - “Nahikua? Akabo?” (haur hizkera eta hizkera arrunta tartekatzen du. Nahikua errateko akabo erabiltze du, haurrak hobeki ulertzeko)
  - “Idortu exkuak ongi ongi e?” (sabaikadura, s>x, galdera eta doinu aldaketa)
  - “Mutturra garbituko dugu ere.” (muturra goxoagoa den hitza erabiltzen du haurrari zuzentzerako orduan)
  - “Jarriko zara? Ttuttu bai?” (haur hizkera tartekatzen du. Jartzeko eskatzen dio haurrari, lehendabizi jarri erranez eta gero ttuttu. Bigarren aldi horreta hobeto ulertuko duelakoan)
  - “Lagunduko dizut koltxonetetara, aupi!” (goitu erran beharrean. Haur hizkeran erabiltzen den hitza erraten dio, aupi)

Haur Hizkeraren transmisioa etxe girotik hezkuntzara: Doneztebeko kasua

- 
- “Fu-fu egin beharko dugu.”(jan beharrekoa beroa dagoenez, fu-fu egiteko erraten dio umeari, haur hizkera erabiltzen du)
  - “Kaxo Izaro e? “(sabaikadura, s>x, goxoagoa delako)
  - “Aupaa...kanpora.” (Igotzeko aupaa erabiltzen du eta doinua aldatu egiten du)
  - “Goxoa dago purea e?” (doinuaren aldaketa)
  - “Mauka igoko duzu maitia.” (hurbiltasuna , afektua adierazteko maitia erabiltzen du)
  - “Ttuttu, hala jarri.” (Jartzeko ttutu erabiltzen du eta gero jarri, haur hizkera eta hizkera arrunta tartekatzen ditu)
  - “Ikuxi duzu postria?”(sabaikadura s>x)
  - “Ze extula!” (sabaikadura z>x)
  - “Izaro ako?” (bukatu duen galdetzeko ako erabiltzen, haurren hitz berezia)
  - “Punba! Miña hartu duzu?”(erori dela adierazteko punba erraten dio, haur hizkera erabiltzen du)

Haurrek ere beraien artean haur hizkera erabiltzen dutela ikusi dugu

- “Ekua” (eskua erran beharrean *ekua* erraten du)
- “Ako” (bukatu dut errateko *ako* erabiltzen du)
- “Tia”(tira)
- “Txutxua”(letxuga erran beharrean *txutxua* erraten du)
- “Aua” (ura adierazteko bokalak bakarrik erabiltzen ditu)
- “Apa” (goitu errateko)
- “Txitxia” (haragia erran beharrean *txitxia* erraten du, hau izan ohi da berandu arte erabili ohi izaten duten hitza)
- “Ako, ako (akitu duela adierazteko *ako* erabiltzen du)
- “Ekerrikako” (eskerrikasko)
- “Patta”(zapata errateko *patta* erabiltzen du)
- “Kaka”(zikina edo txarra errateko *kaka* erabiltzen du)